ASTELEHENEKO
Goienkaria

2007ko urtarrilaren 15a > Astelehena > III. urtea > 129. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Emagin gutxi egotearen arazoa betidanik ezagutu dut; aspaldikoa da"

Ana Aiastui
Emagina Bergarako osasun etxean > 09

LIKIDAZIOA UMEN ETA LORAMENDIN
Erasoak kaltetutako produktuak erostera jende asko joan da > 05

ARRASATE
Aldai hilerri zaharra dagoen lekuan parkea egingo dute > 10

BERGARA
Bihar, martitzena, hasiko dira Irala kalea berritzeko lanak > 11

LEINTZ GATZAGA
Gaztainuzketako etxeek badaukate ura, Marototik eramana > 14

EKONOMIA > LANGABEZIA

Urtea 5,37ko langabezia tasaz bukatu da, iaz baino hobeto

ABENDUA Iazko datua 2005eko abendukoa baino hobea da: 2005. urtea 5,86ko langabezia tasarekin bukatu zuen ibarrak

HERRIZ HERRI Eskoriatzak bukatu du urtea langabezia handienarekin (6,35), eta Gatzagak, baxuenarekin (2,26)

GAILURRAK INEMen arabera, urtean zehar egoten diren langabezia gailurrak behin-behinekotasunak sortzen ditu > 05

OÑATI > APARKALEKUA

Arantzazun, aparkaleku arautua

Mendizaleei mugatu egingo diete aparkaleku nagusia erabiltzea > 05

G2a

Aby-Kem, taldea Danbaka lehiaketako garaile

Haien zuzeneko "bortitz, landu eta sinisgarriarengatik" izan dira bergararrak aurtengo Danbaka lehiaketako irabazleak. Belceblues eta Malenkonia izan ziren beste hiru finalistak. Hirurek kontzertu bikainak egin zituzten baina azpimarragarri izan ziren Belcebluesekoen maisutasuna eta Aby-Kemekoen zuzeneko indarra.

Jim TNT arrasatearrak jaso du bakarlari onenaren saria eta Oñatiko Drakes taldea aukeratu dute ikusleek talde gogokoena. Kerobiak itxi zuen gaua. > 22

OSPAKIZUNA Aby-Kemeko Aimar, Rober, Iñigo eta Mikel egubakoitzean Elgetan. XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Bertatik bertara > 07
Iritzia > 08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-21
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-telebista > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

KIROLA > ANE HERRERO, ESPAINIAKO TXAPELDUN

Arrasatear bat, Espainiako eskubaloiko txapeldun

GOIENKARIA

Kadete mailako eskubaloiko Espainiako txapelketa Euskadiko selekzioak irabazi du, eta talde horretan jokatu du Ane Herrero arrasatearrak.

Txapelketa Vigon jokatu zen urtarrilaren 1etik 8ra, eta Euskadiko taldea Nafarroako selekzioari gailendu zitzaion finalean (13-30). > 19

OSASUNA > TABAKOA

Makina berriak tabernetan

Ibarreko taberna asko tabakoa saltzeko makina berrira egokitu dira. Hori urrutiko aginte bidez dabil, urte hasieran Tabakoaren Aurkako Legearen arau batek hala aginduta. Legeak berak urtebete egin du, denetariko emaitzekin. > 04

Barruan, Antzuola Kirol Elkartearen futbol posterra

Nolako gidaria, halako emaitza.
Gehien komeni zaizun inbertsioa aukeratzeko, gidari ona behar duzu. Ezagutzen zaituen eta zure premiak zeintzuk diren badakien norbaiten laguntza behar duzu. kutxan, zure neurri-neurrirako irtenbidea aurkitzen lagunduko dizuten analistak eta aholkulariak ditugu. Zuretzako inbertsiorik aproposena aurkitzen lagunduko dizugu.
Zatoz, eta elkarrekin egingo dugu bidea.
KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK. Erraza duzu asmatzen.
www.kutxa.net
kutxa
zer nahi duzu bihar?

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA > LEGE BERRIA ONARTU DA

Kontsumitzaileei ziurtasuna emango dien araudia, onartuta

ETORKIZUNA "Buruarekin egindako nekazaritza da, kontuan izanda lurra aurkitu bezala edo hobe utzi behar zaiela seme-alabei", dio ekoizle batek

KONTSEILUA Txostenen arabera erabakiko dute zeinek betetzen dituen arauak Nekazaritza Ekologiko izendapena jasotzeko

KONTSUMITZAILEAK Informatuta daudenek erosten dituzte, batez ere, produktu ekologikoak; baita gaixoek eta hainbat gurasok ere

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Legebiltzarrak Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Legea onartu duelako-edo, asko entzuten da nekazaritza ekologikoaz, baina ezer gutxi dakigu honi buruz.

Ekonekazaritza, Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioko presidentea da Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga, eta azaldu digu zer den nekazaritza ekologikoa: "Buruarekin egindako nekazaritza da. Kontuan hartzen du lurra ezin dugula txikitu edo zikindu, baizik eta etorkizunerako baldintza berdinetan edo hobean utzi behar diegula seme-alabei. Horretarako zehazten da zer erabil daitekeen. Adibidez, intsektizida, pestizida, ongarri kimiko edo industriatik pasatako produktuak debekatuta daude".

AZOKA Lapatzako Tomas Larrañaga eta Maje Gorritxo azokan egoten dira barazkiak saltzen Bergaran, Arrasaten eta Antzuolan. IRATI AGIRREAZALDEGI

KONTSEILUAREN SORRERA

Berriki onartu da nekazaritza eta elikadura ekologikoaren legea. EAEn kontseilu bat sortzearen alde egiten du; beraz, administrazioaren betebeharra haren funtzionamendua ikuskatzera mugatuko da. Tomas Larrañagaren esanetan, "beti eskatu dugu gure lana aintzat hartzea; besteak beste, nekazaritza ekologikoaren gaineko publizitatea egitea. Baina Jaurlaritzaren aitzakia zen benetako kontseilurik ez zegoela. Legearekin, aurrerapausoa eman dugu".

Legearen mamia zein den ere azaldu digu: "Ekoizle, egile edo saltzaile, Ekonekazaritza eta kontsumitzaileen elkarteetako ordezkariekin plenoa osatuko dugu. Diputazio guztiek ere izango dute ordezkaria, baita Eusko Jaurlaritzak ere. Kontseiluak erabakiko du, txostenen arabera, zeinek betetzen dituen arauak Nekazaritza Ekologiko izendapena jasotzeko. Jarduera hasi aurretik toxikoak azalduko balira lurraren analisia egitean, ukuilua aldatu beharko balitz, edo araudiko baldintzak beteko ez balira, ezingo luke izendapena jaso. Plenoak sustapen lana eta kontseiluan lanean jardungo duten langileen aukeraketa ere egin beharko du".

Bestalde, esan du orain arte nekazaritza ekologikoan jardun duten elkarteek aholkularitza lana egingo dutela, "nekazaritza ekologikoa nola egin azalduz, barazkiak tratatzeko produktuak non aurkitu azalduz edo konposta nondik ekarri esanez, adibidez".

Tomas Larrañagak, nekazaria denez, bere esperientziatik ere hitz egin digu. Produktu ekologikoak zeinek kontsumitzen dituen galdetuta, zera erantzun digu: "Informatuta dagoen jendeak. Tartean, irakasle asko daude. Baita gaixo asko ere, besteak beste, minbizia dutenak. Naturistek aholkatzen dute nekazaritza ekologikoa kontsumitzea, baita sendagile batzuek ere. Ume txikiak dituzten gurasoak ere etortzen dira umeendako pureak gertatzeko barazki bila. Horrelakoetan esaten diet umea ondo zaintzen dutela, baina euren burua ere zaintzeko".

Leintz Gatzagako San Martin baserrian, ogia modu ekologikoan egiten du Kristina Iñarrak, eta ondoren, ibarreko belar dendetan saldu. Bezeroekin harreman zuzena ez badu ere, esan digu, "askok, ogi integrala hasi zenean, komunera joaten laguntzen ziolako jaten zuen. Egun, ogia gustuko dutelako edo produktu ekologikoen alde daudelako jaten dute".

Lege berriak ez dio aparteko aldaketarik ekarriko: "Ogia modu ekologikoan egiteko, gariaren kalitatea bermatu behar da. Garia analizatu eta komeni zaiguna aukeratzen dugu, irinak ezaugarri zehatzak behar dituelako. Prozesua ere geldoagoa da, legami naturala erabiltzen dugulako".

OGIA Belar dendetan saltzen dute Kristina Iñarrak egindako ogia. JON BEREZIBAR

Baina argitu digu legea, eurendako ez ezik, kontsumitzailearendako abal bat dela: "Ni ogia modu ekologikoan egiten hasi nintzen filosofia bategatik baina, gaur egun, jende askok egiten ditu produktu ekologikoak, filosofia alde batera utzita, bestelako arrazoiengatik, eta hori dela medio, kontrola beharrezkoa da".

Nekazaritza ekologikoa ibarrean

OPERADOREA	HERRIA	JARDUERA
Jose Lanbide	Aramaio	Barazkiak eta frutarbolak
Agurtzane Diaz	Bergara	Barazkiak eta ardiak
Lamaño-Etxeberri	Bergara	Barazkiak
Tomas Larrañaga	Antzuola	Barazkiak eta frutarbolak
Pikunieta	Antzuola	Ardiak, esnea eta esnekiak
Jakion	Leintz Gatzaga	Barazki kontserbak
Galgorri	Elgeta	Ogia eta gozogintza
Kristina Iñarra	Leintz Gatzaga	Ogia
Hurbil belar denda	Bergara	Salmenta

OSASUNA > TABAKOA SALTZEKO MAKINAK, ORAIN URRUTIKO AGINTE BIDEZ

Taberna asko badabiltza tabakoa saltzeko makina sistema berriarekin

Dagoeneko taberna askotan normaltasunez erabiltzen dute gailua

Zenbait kasutan, tabakoa saltzeari utziko diote, beste aukerarik ezean

BERGARAKO FRONTOIA Erretzen jarraitzen da pilota partiduetan legeak galarazi arren. JOSETXO ARANTZABAL

JON BEREZIBAR > BERGARA

Tabernetako tabako makinak urrutiko agindu baten bitartez piztu eta itzali beharko ditu orain zerbitzariak bezeroak tabakoa har dezan. Tabakoaren aurkako legearen neurri berria da hori, urtarrilaren lehenetik indarrean dagoena, eta helburua da adin txikikoek tabakorik ezin erosi izatea. Hala, bezeroak tabakoa makinatik hartu nahi izatekotan zerbitzariari esan, hark 18 urte edo gehiago dituela ziurtatu eta urrutiko aginduaren bitartez pizten du aparailua. Minutu erdi du bezeroak tabakoa hartzeko.

Urtebete egin berri du Tabakoaren Aurkako legeak, eta azken neurriak ika-mika sutu baino ez du egin ostalarien artean. Nahikoa arazo eragin ditu dagoeneko leku publikoetan erretzeko debekuak, eta arau berriak harrera epela izan du. Erantzukizunak eta betebeharrak oraindik ere oso lauso daude. Esate baterako, Bergarako pilotalekuan lehen bezala jarraitzen da erretzen.

Azken neurriak makinak agintearekin kontrolatzera behartzen ditu tabernariak, eta mekanismo berria 250 eta 480 euro bitartean kostatzen da, motaren arabera. Honen aurrean, bi aukera daukate tabernetan: edo egoera berrira moldatu, edo tabakoa saltzeari utzi. Mondragon hoteleko tabernan, esateko, bi makina dauzkate, eta dagoeneko egokituta daude bi banatzaileak. Rafik, tabernako arduradunak, azaltzen duenez, "lan handiagoa da", baina ez die hainbeste buruhauste sortzen. Bezeroei dagokienez, "jendeak badu neurri horren berri, eta zuzenean joaten dira eskatzera". Makinan bertan ohartarazten zaio erosleari une horretan gailua ez dagoela martxan. Hoteleko tabernan gune guztietan erre daiteke gaur egun. Rafik dio "batzuetan lan handia badago gogaikarria izan badaiteke ere, egokia" iruditzen zaiola neurria, "adin txikikoek tabakorik eros ez dezaten".

SALTZEARI UTZI

Tabernariek ekainera arte daukate egoera berrira moldatzeko epea. Hortik aurrera, makina guztiek beharko dute urrutiko kontrola, ezingo baita barran bertan saldu ere. Hotelekoaren aurkako kasuaren adibidea Bergarako Arrano tabernan hartutako erabakia da. Han ere makina daukate barra ondoan baina, aipatzen dutenez, behin dauzkaten izakinak salduta, makina kendu egingo dute. Hala ere, tabakoa saltzen jarraitzea erabaki duten taberna gehienek badaukate gailu berria.

Lege berriaren eraginari dagokionez, Espainiako Osasun Ministerioak dio 2006an 756.000 bat lagunek utzi ziotela erretzeari. Bestalde, ostalaritzari dagozkion neurrietan huts egin duela ematen du, soilik lokalen %15ean debekatu baita erretzea.

MOBILIZAZIOAK > SEGIK DEITUTAKO BORROKA EGUNA

Gazte bat atxilotu zuten Arrasaten, Borroka Eguneko istiluetan parte hartu zuelakoan

Arrasateko manifestazioan, tentsio uneak bizi izan ziren; Bergaran, ertzainek galarazi egin zuten agerraldia

LELOA *Epaiketa politiko guztiak eten* lelopean atera ziren Arrasaten. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Segi gazte erakundeak Borroka Eguna deitu zuen egubakoitzean Euskal Herri osoan. Gurean ere, deialdiari erantzunez, izan zen ekintzarik.

Ekintza horiekin, Segikoek eta deiarekin bat egin zutenek salatu nahi zuten "Auzitegi Gorenak Segi erakundearen aurka egin nahi duen epaiketaren zilegitasun eza eta gazte mugimenduek jasaten duten jazarpena", euren hitzetan; eta "estatu frantziar zein espainiarrari gatazka politikoa bukatzeko borondatea" adierazi zieten.

MANIFESTAZIOA

Goizeko hamaiketan, geldialdiak egin zituzten ikastetxeetan, eta eguerdian manifestazioak Arrasaten eta Bergaran. Arrasaten manifestariek bidea moztu zutenean tentsio uneak bizi izan ziren; Bergaran, berriz, manifestazioa abiatu eta berehala galarazi zuten ertzainek. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleek ere agerraldia egin ostean, 23 urteko gasteiztar bat atxilotu zuten ertzainek, ustez edukiontzi bat irauli zuelako istiluetan. Gerora, aske utzi zuten gaztea.

> INGURUMENA

Debagoiena da EAEn airearen kalitate indize txarrenak dituzten guneetako bat

Airearen kalitatea neurtu dute EAEn eta, emaitzen arabera, Gipuzkoa da maila baxuena ematen duen probintzia. Airearen kalitate txarra, oso txarra edo arriskutsua neurtu dute hamar egun baino gehiagotan EAEko hainbat gunetan, eta horietako bat da, hain zuzen ere, Debagoiena. EAEn, batez best,e 5,36 egun dira airearen kalitatea txarra dena; gurean, ordea, ia hirukoiztu egin da kopurua, 15 egun baitira negatibotzat hartu direnak. Airearen kutsadurari aurre egiteko plangintzak dira, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailean lehentasuna dutenak. Horren harira, hainbat udaletan abian ipini dituzte kutsadura gutxitzeko ekimenak, esaterako, Arrasaten.

> LANA

Hitzarmen hobe baten alde dihardute Arrasateko eta Bergarako lurrindegi batzuetako langileak

Gipuzkoako lurrindegi batzuetako langileak euren egoeraren berri ematen hasi ziren joan den astean; horretarako, informazio paperak banatu zituzten. Dapargel izeneko enpresan dauden langileak dira mobilizazioetan hasi direnak; tartean, Arrasateko In Faradis eta Bergarako Schleckerreko langileak.

Gipuzkoako hitzarmena sinatzea da euren aldarrikapena. Izan ere, gaur egun Estatuko hitzarmena aplikatzen zaie Gipuzkoako langileei, Bizkaian ez bezala. Gipuzkoako saltzaileek 10.074 euroko soldata dute urtean, eta Bizkaikoek, berriz, 12.792 eurokoa. Langileek zuzendaritzari berezko negoziazio esparrua irekitzea eskatu zioten, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

EKONOMIA > LANGABEZIA

Langabe gutxiago joan den abenduan 2005ekoan baino

INEMen arabera, 2006a 5,37ko langabezia tasarekin bukatu da; 2005ean, 5,86 zen

Hilez hileko datuak zerbait txarragoak izan dira iaz orain bi urte baino

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Langabeziari dagokionez, 2006a aurreko urtea baino datu zertxobait hobeagoarekin bukatu da: hala, 2006ko abenduan %5,37ko langabezia tasa ematen dute INEMeko datuek, 1.663 langabe; 2005ean, %5,86koa zen. Joera 2005ean bezalakoa izan da: hala, langabezia datu altuenak otsailean (%6,49), abuztuan (%5,67) eta abenduan izan dira; joan den abenduan, 2005ean bezala, 20 bat puntuko igoera izan zuen langabezia tasak; Arrasateko INEMeko Elena Mondragon arduradunaren esanetan, hori ia beti horrela da "abenduan behin-behineko kontratuak bukatzen direlako".

Esan behar da ere, 2006ko abenduko datua 2005ekoa baino zertxobait hobea bada ere, orokorrean, hilez hileko datuak txarragoak direla 2006an.

Herriei dagokienez, langabezia tasa altuena Eskoriatzari dagokio: %6,35 (132 langabe), eta baxuena, berriz, Leintz Gatzagari, %,2,26 (hiru langabe INEMen izena emanda). 2005ean, tasa altuena Arrasatek izan zuen (%6,62, 766 langabe).

BEHIN-BEHINEKO LANAK

Mondragonen esanetan, kopuru horiek ez dira harritzekoak: "Behin-behinekotasunaren eragina dira urteko gailur horiek: abuztuan kontratu asko bukatu egiten dira, irailean jende hori berriro lanean hasten da, abenduan berriz kontratuak bukatzen dira... Jendeak langabezia-saria kobratzeko badu, etorri egiten da, baina beste asko, ez: behin-behineko langile gehienek INEM ez beste bide batzuetatik topatzen dute lana".

Hainbat datu nabarmen

	LANG. TASA
2006ko abendua	5,37
2005eko abendua	5,86
Tasa altuena (Eskoriatza)	6,35
Tasa baxuena (Gatzaga)	2,26
Tasa altuena (otsaila)	6,49
Tasa baxuena (urria)	5,10

ILARAK Jende mordoa bildu zen Erdiko Kalen Loramendin zerbait erosteko asmoz. JOSETXO ARANTZABAL

BEHERAPENAK > UMEK ETA LORAMENDIK EZOHIKO BEHERAPENAK JARRI DITUZTE

Ilara luzeak sortu dira Ume eta Loramendi dendetan kaltetutako materiala erosteko

Gaur, astelehena, ere zabalduko dituzte ateak Loramendiren behin-behineko lokalean, Erdiko kalean

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Oraindik badago zer erosia Loramendik jarri dituen ezohiko beherapenetan. Joan den asteko erasoan kaltetutako materiala saltzen ari dira. Gaur, astelehena, berriro irekiko dute Erdiko kaleko 28an zabaldu duten lokala, geratzen zaien generoa bukatu arte.

Zapatuko goizeko 9ak inguruan ireki zuten denda. Ordurako, jende mordoa zegoen zain; izan ere, jendea goizeko 7etan jarri zen ilaran. "Txamarrak eta polarrak izan dira gehien saldu diren jantziak", adierazi digu Loramendiko Itziar Uriartek.

Ume arropa dendakoek ere ezohiko beherapenak egin dituzte, kaltetutako materiala saltzeko.

BEHERAPENAK, MOTEL

Bestalde, ibarreko dendariek esan digutenez, aurtengo beherapenak nahiko motel doaz. Eguraldi kontuagatik edo, neguko arropa kosta egin da saltzea. "Neguko kanpaina eta Gabonak motelak izan dira, eta beherapenak ere berdintsu doaz oraingoz", esan digu Bergarako Mujika dendako Trinik.

Arrasateko Lasagabasterren ere hori bera esan digute: "Berokiak ez dira ondo saldu; sasoi arteko arropak, berriz, oso ondo saldu dira".

GOIENKARIA

Estetika konpontzaile zentroa, gureko jendearendako ere

Estetika konpontzaile zentroa zabaldu dute, Estatu osoan bigarrena eta Euskal Herriko bakarra. Bi zentro daude, bat Donostian eta bestea Zumarragan, baina arduradunak berberak dira. Minbizia edo bestelako gaixotasunak, zein istripuak izan dituztenendako zentroa da, ezbeharren eragin estetikoa murrizteko eta itxura hobetzeko. Beatriz Blanco arduradun nagusiaren esanetan, Debagoieneko lagun asko inguratzen dira bertara. Argazkian, Zumarragako zentroa, Euskal Herria kalean.

MAPFRE
BERGARA
ZATOZ, ZURE ZERBITZURA GAUDE

Gabonetako zozketako irabazlea
Martin Muruamendiaraz
Zenbaki saritua: 034
Saria: ardandegia eta ardo botila sorta

IBARGARAI 5 BERGARA
Tel. 943 76 28 79

Erizain ikasketak egin ondoren, emagin izateko espezializatu zen Ana Aiastui oñatiarra; handik gutxira, oposaketen bidez, Bergaran lanpostu finkoa lortu zuen. Aspalditik dabil lanean, hortaz, ondo ezagutzen du emaginekin dagoen arazoa, nahikoa ez daudela, alegia. Gai horretaz eta bere lanaren hainbat alderdiz egin dugu berarekin berba.

Ana Aiastui > Emagina

"Emagin faltaren arazoa betidanik ezagutu dut nik; aspaldiko kontua da"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Oñatiarra da Ana Aiastui, baina Bergarako osasun etxeko emagina da luzaroan. Debagoienean, hainbat emakumek eragozpenak izan dituzte, herri batzuetan emagina falta izan delako. Aiastuik badu arazo horren berri, eta ez dio irtenbide errazik ikusten.

Noiztik daramazu Bergaran lanean?

Badira 21 urte hemengo osasun etxean nagoela. Nire ibilbide ia osoa Bergaran egin dut; lehenengo, Debagoieneko Ospitalean jardun nuen denboraldi txo baten.

Zein ikasketa egin behar dira emagin izateko?

Lehenengo, Erizaintza ikasi behar da, eta gero, espezialitatea egin. Nik urtebeteko ikasketa trinkoak egin nituen, bi urtekoen baliokide zirenak. Erizaintza ikasketak egindakoan, hainbat espezializazio aukera nituen, eta hauxe hartu nuen, alor hau gustuko nuelako.

Zail egin zitzaizun emagin lan finkoa lortzea?

Osasun publikoan egiten den moduan, oposaketa bidez lortu nuen, eta oso zaila izan zen; denbora asko jardun nuen bitarteko emagin moduan, interina moduan.

Zertan datza zure lana?

Bi arlo handi daude. Batetik, haurdun dauden emakumeak ama izateko prestatzen ditut. Haurdunaldia, erditzea eta erditze-osteko prestakuntza lantzen dugu; baita edoskitzaroa eta jaioberriari dagozkion hainbat gai ere. Horren guztiaren gaineko teoria lantzen dugu, eta ariketak ere egiten dituzte: erlaxazioa, arnasketa, erditze-osteko gimnasia…

Bigarren arlo handia da kontsulta: ginekologia gaien, haurdunaldiaren, erditze-ostearen eta familia-plangintzaren gaineko kontsulta egiten dut.

Ginekologoarekin kontsultan ere egoten zara?

Ez. Orain urte batzuk, horrela izaten zen, baina orain ginekologoak beste laguntzaile bat izaten du. Orain, emaginak egiten duena da emakumeak ginekologoarekin egotera bideratu, kontsulta prestatu, behar den informazioa batu eta analisiak eskatu… Bergarara astelehen eta eguenetan etortzen da ginekologoa. Bestetik, haurdunaldiarekin zerikusia duten kontsultak Arrasaten egiten dira, eta hara bideratzen ditut emakumeak tokatzen denean.

Ana Aiastui emagina, Bergarako osasun etxeko bere kontsultategian. L. KORTABARRIA

UME GEHIAGO

"Gero eta etorkin gehiago dago, eta hori asko igartzen da jaiotze kopuruari dagokionean"

Emaginaren lanak garrantzi handia duela, hortaz.

DENONDAKO GAIZKI

"Emagin batek ordezkapena egin behar duenean, lan gainkarga izaten du"

Emaginondako, argi dago baietz. Esate baterako, askotan emakumeak ezin du zuzenean ginekologoarekin egon, ez bada bere medikuak larrialdi moduan bideratzen duela. Kasu horietan, emakume horiek emaginarengana etor daitezke: adibidez, baginako infekzioak askotan gertatzen dira eta horiek geuk trata ditzakegu.

ERDITZE ONAK

"Gurean, erditze gehienak zesarearik eta bentosa edo antzeko tresna barik izaten dira"

Azkenaldian, zerbitzu garrantzitsu hori ez dute denek jaso ahal izan, emagina falta izan delako zenbait herritan…

Bai, eta guretako ere oso egoera txarra da: ordezkoa dagoenean, premiazko lana bakarrik egin dezake, eta ondorioz, ama berriendako hezkuntza saioak mugatu egiten dira; horrez gain, ordezkoarendako lan karga handia izaten da, bere ohiko lana ere egin behar duelako, eta azkenean, biak erdizka egiten dira.

Neuri ez zait egokitu ordezkapenik egin behar izatea, baina neu bajan egon izan naizenean, lau bat emagin pasa izan dira hemendik.

Zergatik dago horrelako arazoa, zure iritziz?

Zaila da esaten, baina egia da oso postu gutxi egoten dela Osakidetzako lan eskaintzan; ni aurkeztu nintzenean, 300 eskatzaile zeuden hogei posturako. Horixe da osasun publikoko betiko arazoa: beharra dago, eta badago jendea lanerako gertu, baina leku gutxi eskaintzen dituzte. Emaginon arazo hau aspalditik dator, nik betidanik ezagutu dut, herritarrek ardura dute, eta ulertzekoa da.

Entzuten da jaiotze tasa igotzen hasi dela gurean ere…

Nik ez dauzkat oraindik datu zehatzak, baina, nire inpresioaren arabera, eta hemengo pediatrari entzunda, esango nuke baietz, ume gehiago jaiotzen ari direla orain. Etorkinak ere gero eta gehiago daude, eta hori ere igartzen da.

Zuk denetariko jatorriko emakumeak atendituko dituzu, ezta?

Bai, bai, leku guztietatik etorritakoak pasatzen dira gure kontsultategitik. Latinoamerikarrekin ez dago inongo arazorik, baina hizkuntza menderatzen ez dutenekin komunikatzea oso zaila izaten da batzuetan. Marokoarrek ez dute halako arazorik; traba gehien izaten dutenak pakistandarrak dira.

Emakume musulmanekin arazorik izan duzue ginekologoarekin kontsulta pasatzeko?

Ez, normalean ez; bakarren batek eskatu izan digu emakumezko batek atenditu zezala, baina salbuespena izan zen. Ohikoagoa izaten da, berriz, taldeko gimnasia saioetan ez parte hartzea.

Zesarea asko egiten direla entzun dugu. Egia da?

Ez, gurean ez. Zortea dugu: hemen, erditze gehienak normalak dira, zesarearik eta bentosa edo bestelako tresnarik gabe.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> 1956 urtean jaiotakoek afaria egingo dute

Otsailaren 3an egingo dute, Zabala jatetxean. Izenematea Zabala jatetxean egin behar da (943 76 20 07) urtarrilaren 25a baino lehen. Afari egunean Fraiskozurin elkartuko dira, 19:30ean.

ANTZUOLA

> Herri batzarra egingo dute bihar, martitzena

Antzuolako Ezker Abertzaleak herri batzarra deitu du biharko, martitzena, udaletxean, 18:30ean, udal hauteskundeetaz hitz egiteko.

BERGARA

> Arianeren aldeko loterian, saria

Ariane umearen alde saldutako loteriak saria jaso du. Sari hori Euskadiko Kutxan kobratu behar da. Haren lagunak eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman dieten herritar guztiei..

OÑATI

> Aloña futbol sailaren zozketa

Aloña Mendiko futbol saileko zozketan hutsik geratu da 3. saria irabazlea agertu ez delako. Ordezko zenbakia 4.872 da. Hamabost eguneko epea dago saria jasotzeko.

BERGARA

> Bedelkarreko Gabonetako zozketa

Dendarien elkarteak Gabonetan egindako zozketan saritutako zenbakiak dira: 08.373, 09.183, 14.227, 31.137, 48.030, 52.358, 60.201, 61.008, 50.938, 62.383, 70.318, 71.376, 79.715, 80.969, 85.101.

OÑATI

> Yoga eskoletan izena emateko epea zabalik

Hilaren 23ra arte dago zabalik izena emateko epea. Eskolak hilaren 19an hasiko dira eta maiatzaren 28an bukatuko dira. Astelehen eta eguaztenetan izango dira 17:00etatik 18:30era. Aulas Kutxak subentzionatutako ikastaroa da. Izena emateko jo: *www.kutxasocial.net* helbidera edo deitu: 902 54 00 40 zenbakira.

ESKORIATZA

>'Lehoinabarraren aztarna' dokumentala

Andoni Ormazabalek haren anaia zenaren oroimenez egindako dokumentala emango dute bihar, martitzena, 19:00etan, kultura etxean. Anaiak Sobietar Batasunean bost gailurrik altuenetara egindako igoerak kontatzen ditu dokumentalean.

BERGARA

>Shotokan elkarteak saldutako loterian, saria

Shotokan karate elkarteak Gabonetan saldutako loteriak saria jaso du. Sari hori kobratzeko Kutxak San Martin plazan duen bulegotik pasatu behar da gaurtik aurrera.

BERGARA

> Jardunek begirale lan poltsa osatu nahi du

Baldintzak dira euskaraz ondo jakitea eta begirale titulua izatea. Ikasketak eta esperientzia ere baloratuko dira. Interesatuok bidali curriculuma: Bergarako Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570. Edo *gaztejardun@topagunea.com* helbidera

ARRASATE ETA ESKORIATZA

> Euskal soin jarduera jaialdiak egingo dituzte asteon herriko neska-mutikoek

Arrasaten gaur, astelehena egingo dute jaialdia. 10:00etatik 12:00etara izango da eta parte hartuko dute San Viator, Santa Teresa, Arrasate Herri Eskola eta Mesedetako ikastetxeko LH 5 mailako ikasleek. Aretxabaletan, eguaztenean egingo dute jaialdia. Almen eta Kurtzebarriko LH 5 mailako ikasleek jardungo dute.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

ARRASATE

>Barreterapia ikastaroa Emakume Txokoan

Urtarrilaren 22tik martxoaren 26ra arte luzatuko da ikastaroa. Eskolak astelehenetan izango dira, 15:45etik 18:15era. Informazio gehiagorako jo Emakume Txokora.

BERGARA

> Igerilekuko txartela berritzeko deia egin dute

2007an igerilekuko txartela mantendu zein berria egin nahi dutenek, derrigorrez pasa behar dute Agorrosinetik. Izan ere, 2006 urte bukaeran baja eman zaie herriko txartelei eta mankomunatuei. 2007rako txartela nahi dutenek datu pertsonalak eta kontu korronte zenbakia eman beharko dute Agorrosinen.

ARETXABALETA

> Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrerak

Salgai daude dagoeneko Pirritx eta Porrotx pailazoek hilaren 27an egingo duten emanaldirako. Kultura etxean eta kirol etxean eskura daitezke 4 euroren truke –egunean bertan 5 euro balioko dute–.

DEBAGOIENA

> Baserriko plastikoa hilaren 23an batuko dute

Hilaren 23an batuko dute baserri ingurunean sortutako plastikoa.Bilketa puntuak ohikoak izango dira.

etxeko leihotik

Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

Bidegorriak lehentasun izan beharko lirateke

Gipuzkoako Batzar Nagusiek hartutako azken erabakietako bat: 600 eurora arteko isunak jarriko dituzte herri arteko bidegorriak txarto erabiltzeagatik. Zirkulazio arauak daukan garrantzia hartuko du aurrerantzean bidegorrienak. Ez dakit pozik jarri edo barrezka hasi. Izan ere, ona da erakunde publikoek bidegorriei garrantzia ematea eta, gero eta erabiltzaile gehiago dituztenez, erabilera arautzea. Baina, begiratzen dut nire inguruan eta ez dut herriak lotzeko bidegorririk ikusten, salbuespenak salbuespen.

Debagoieneko Udalek serioago hartu beharko lukete kontu hau. Badakit ibarreko kirol teknikariak sentsibilizatuta daudela eta bidegorriak beste edozein kirol ekipamendu moduan ulertzen dituztela. Horregatik nahi dute dirua gorde lehenbailehen eraikitzeko, hau da, inguruan ditugun ibilbide zoragarri horiek, trenbide zaharreko trazatua aprobetxatuz, egokitzeko.

"Badakit ibarreko kirol teknikariak sentsibilizatuta daudela bidegorriekin"

Udalek lehentasun moduan hartu beharko lukete hori, ze honetan ere, Gipuzkoako azkenak gara, ganorazko errepideak edukitzen azkenak eta ibai higuingarria garbitzeko planak garatzen azkenak garen moduan.

> Gipuzkoako bidegorrien sareak 357 kilometro izango ditu eta, herriak ez ezik, ibarrak ere lotuko ditu; 100 milioi euro bideratu dituzte sare hori eraikitzeko. Noizko, baina, hori?

> Antzuolako Udalak erosi berri du lursail bat, lehengo trenbide zaharrarena Uzarraga inguruan, bidegorria egiteko. Pozteko moduko ekimena da. Ea noiz ikusten ditugun lotuta Osintxu eta Uzarraga.

debagoiendarrak kanpoan

Txerra Bolinaga > Arrasate

"Arrasatearrez josita dago Gasteiz; inbaditu egin ditugula diote hemen"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Hamabost urte darama Txerra Bolinaga arrasatearrak Gasteizen bizi izaten, baina, bien arteko gertutasunarengatik ez du inoiz harremana galdu. Giroz aldatzeko joan zen Gasteizera.

Noiz joan zinen Gasteizera bizi izater?

1993an edo. Aldaketa behar nuen nire bizitzan, eta Gasteizera etorri nintzen, asko gustatzen zitzaidan-eta hiria. Lana topatu, gizarte mugimenduan parte hartu... hemen hasi nintzen horrekin guztiarekin.

Arrasaten ere asko mugitu zinen, batez ere musikan.

Bai baina Gasteizkoa bestelakoa izan zen. Gizarte mugimenduekin lehen harremanak Arrasaten izan nituen, baina benetan sartuta, Gasteizen ibili naiz.

Musikarekin ere jarraitu zenuen Gasteizen?

Bai. Bere garaian, zer edo zer egin nuen baina Arrasateko harremana ez dut sekula utzi. Arrasate bertan dago.

Botatzen duzu zerbait faltan Arrasatetik?

Arrasate oso itxia egiten zitzaidan, eta hiri baten askoz ere aukera gehiago ematen dizkizu. Ekintza gehiago, harremanak... espazio gehiago dago hiri baten.

Bestalde, Gasteiz ere ez da hain handia, eta leku guztietara oinez joan zaitezke. Inoiz ez nintzateke joango Madril moduko batera, adibidez. Orain, oso hiri handi bihurtu nahi dute, baina

GOIENKARIA

Giro aldaketa Gasteizen
Arrasateko giroa aldatzeko, bizitza berriari ekin zion Bolinagak Gasteizen orain hamabost urte.

gasteiztarrok ez dugu horrela pentsatzen, eta aurre egingo diogu.

Zer da Gasteiztik gehien gustatzen zaizuna?

Giro alternatiboa. Gaztetxearen inguruko mugimendua asko gustatzen zait, Alde Zaharrean batez ere. Hiri hauetan gertatzen dena da bi aldeak dituzula: pertsona oso kontserbadoreak, alde batetik, eta beste muturra, bestetik. Ekimen herrikoi indartsua dago Gasteizen, nahiz eta giro alternatiboa orain makal dabilen.

Alde Zaharrean bizi zara zu?

11 urte bizi izan naiz han, baina hiru urte daramat beste leku baten. Baina nire bizitza han dago, ondo ezagutzen dut hango giroa, guztia dago han: gizarte mugimenduak, tabernak... Nik Alde Zaharrekotzat daukat nire burua. Udalari aurre egiten dion mugimendua dago han eta ni sartuta nago. Hala ere, Arrasate hurbil dago eta nik ez dut harremana galdu: domekero joaten naiz palan jokatzera eta asko egoten naiz lagunekin. Hasierako urteetan egon nintzen urrunago, lehenengo lau urteetan edo, baina gero berreskuratu egin dut.

Zelan ikusten da Arrasate Gasteiztik?

Arrasatearrez beteta dago Gasteiz; esaten dute inbaditu egin ditugula. Ezagutzen dira Gasteizen Arrasate eta Debagoiena, eta iritzi ona daukate, orokorrean. Gainera, esan bezala, arrasatear pila bat bizi da Gasteizen, eta jende askorekin egiten duzu topo hemen.

kale inkesta

Organo emate kopuru handiena dago Euskal Herrian. Izango zinateke organo emaile?

Asier Rodriguez
Langilea
Bergara

Bai, zergatik ez. Orain arte ez naiz emaile izan eta ez dut horrekin sekula pentsatu, baina ez nuke horretarako inolako arazorik izango. Izan ere, uste dut badagoela jendea organoen behar larrian.

Jon Diaz
Ikaslea
Bergara

Ni neu banaiz organo emailea. Gurasoek proposatu zidaten, eta orain dela hiru urte bete nituen paperak. Istripuren batean hilko banintz-edo, nire organoak aprobetxa zitezen gustatuko litzaidake.

Elisa Azkarate
Langilea
Bergara

Bai; oso ondo iruditzen zait, batez ere, organo emaile kontzientzia hori hartzea. Oraingoz ez dut inongo erregistrotan izenik eman, baina kasua tokatuz gero, organo guztiak emateko gertu nengoke.

Nagore Laskurain
Langilea
Bergara

Bai, izango nintzateke. Orain arte ez dut aukerarik izan organo emaileen erregistroan izena emateko, baina, beharra dagoenez, ondo iruditzen zait. Odola ere emango nuke baina, dudan pisuarekin, ezin dut.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA

> Zebra bideetan ikusmen oztopatzen dituzten elementuak

Irakurle batek dio batez ere Arrasateko erdialdean "atentzioa deitzen dion" dion gauza bat gertatzen dela. Zebra bideen aurretik leku askotan zabor-edukiontziak eta ikusmena oztopatzen duten trabak jartzeko ohitura dutela salatzen du.

Hark dioenez, "autoan gidatzen zoazela, zebra bidearen hasieran edukiontzi bat dagoenean, ez dakizu norbait pasatzera doan arte edo gertutik badabil ere. Hara gerturatu eta gelditu arte ezin duzu ziurtatu". Beste kasu bat ere azaltzen du irakurleak: "Bidegurutzeetan ere, sarri, bidea eman behar denean, gurutzatzen datorren noranzkoan edukiontziak eta kamioiak egoten dira, eta bidera atera arte ez duzu jakiten ea autorik badatorren".

ZUZENKETA

Labe bakarra aurkitu da Eskoriatzan

Eskoriatzan Santa Marina auzoan Arantzadik egindako induskeketan kanpaiak egiteko labe bakarra aurkitu zen eta ez bi aurreko asteko erreportajean argitaratu moduan.

Hala jakinarazi digute Ibarraundi museoko arduradunek, metala urtzeko labe bakarra zegoela han.

usteak uste

Mireia Bikuña

Pediatrak Oñatin

Urte berriari egitasmo eta nahi berriak eskatzen dizkiogu. Badakizue, gimnasioan izena eman, erretzeari utzi... Bakoitzak daki zer eskatu dion hasi berri dugun urteari. Nik, behintzat, argi daukat: Oñatirako pediatra zerbitzu duina eskatzen diot.

Guraso talde bat hasi da dagoeneko pediatra zerbitzu duina eskatzeko sinadurak biltzen. Nik dagoeneko nire sinadura eman dut. Ama eta oñatiarra naizen aldetik, beharrekoa ikusten dut pediatra bat izatea.

Orain arte Oñatin izan dugun pediatrak euskara ikasteko eszedentzia eskatu du. Eta bitartean, Oñatiko haurrek (1.300 inguruk) eta hauen gurasook medikuntza orokorreko medikuarekin konformatu beharra dugu. Noiz arte?

zorroztailea

Juan Luis Azkarate

Hitzen gakoa

"Bordel bertsolariaren hura etorri zaio gogora, errepika obsesibo baten modura. "Koleran zirela dudarikan ez da, baina pena guztiak ezin manifesta". Bera konbentzituta dago bakea lortzen den egunean ez dela artean bakerik izango, uste baitu etorkizunaren larrutik nozituko dugula gaurko miseria morala"

Anjel Lertxundi
Berria > 2007/01/13

Hitz beste

Anjel Lertxundi

Ezin manifesta

Beste manifestazio bat, zenbat doaz? Gaurtik aurrera, zerbait aldatuko da? Manifara sarri joaten direnak manifestaziora joaten ez diren bitartean, oso gaitza.

Espainiako Gobernuak jakingo du hainbeste hilabetetan zergatik ez dituen desaktibatu estatuaren mendeku politikoaren armak, baina negoziazio edo elkarrizketa guztietan ezker eskua izatea funtsezkoa da. Bestela, jai.

ETAk, su-etenaren amaierarekin, euskaldun guztion itxaropena zapuztu eta bi etorkinen etorkizuna bertan behera utzi zituen abenduaren 30ean, eta orain ematen du abenduaren 29ko eskenatokira itzuli nahi duela hitz-joko makabroen bidez.

Berriro ere bere indar guztia (500 kiloko indarra, alegia) arlo militarrean jarri du, joko-arau guztiak apurtuz, eta bere diskurtso politikoa inoiz baino ulertezinago eta ilunago eginez.

Sekula ez naiz kapaz sentitu *Zutabe* bat osorik irakurtzeko, baina oraingoan marka guztiak gainditu dituzte: zein da aldea su-etena eta ekintza armatuen etenaldi iraunkorrarekin?, posible liteke argudiatzea su-etenaren erdian jartzen den bonba hiltzailea? Deskodifikadorea beharko da ulertzeko.

"Ezker abertzaleak eta ETAk hiztegi asmatu bat konpartitzen dute"

"Amnesia terapeutikoa izan beharko da herri honen errezeta"

Hitzak ere gakoa dira euskal zera honetan. Honetan, ezker abertzale ofizialek eta ETAk hiztegi asmatu bat konpartitzen dute. Behin eta berriz errepikatzen dute, gainera, hitz gako berdinak. Lehen gakoa zen gatazka. Orain da Prozesua. Kontzeptu ia abstraktuak, polisemikoak, esanahi zabalekoak. Estatuaren aldetik jasotzen duten egurra kalifikatzeko, aldiz, hiperbolera jotzen dute: genozidioa, apartheid... hauek eta besteak: faxistak; gu: herria, langileria, euskal gazteria... ETAren ekintzak eta hilketak? Erantzuna, erantzuna besterik ez (erantzun honetaz arituko ote zen Dylan *haizeak dakarren erantzuna* kantatzean?).

Herrialde honek hondoa jo du eta egunen batean bakea lortzen bada, memoria historikoa beharrean, amnesia terapeutikoa izan beharko da herri honen errezeta, Lertxundik aipatzen duen miseria morala, hainbeste hildako eta alferrikako hainbeste sufrimendua ahaztu ahal izateko, bederen.

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 **Bergara** > 11 **Oñati** > 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
Antzuola > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14

> BERGARA
Bihar, martitzena, hasiko dira Domingo Irala kalea berritzeko lehen faseko lanak **> 11**

> OÑATI
Arantzazuko aparkaleku nagusia mezetara doazenendako gordeko dute jaiegunetan **> 12**



> ELGETA
Salbador kale amaierako azpiegitura elektrikoa berritu du Iberdrolak 400.000 eurorekin **> 14**

BERGARA > ZALETASUNAK

Barazkiak eta sukaldea, konbinazio osasuntsua eta oso aberatsa

IKASTAROA
Sukaldaritza begetariano eta nutrizio eskolak daude Bergaran

ARRAKASTA
Hamasei lagunekin dihardute, baina 64k eman zuten izena

EZUSTE ONA
Askori uste faltsuak baztertzen laguntzen die ikastaroak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

"Dieta begetarianoak ez ditu behar diren elikagai guztiak ematen"; "Plater begetarianoak ondo daude, baina oso bariazio gutxi egin daitezke"; "Osagaiak aurkitzen zailak dira, eta izugarri garestiak"... Denok entzun izan ditugu horrelako komentarioak. Bada, guztiak uste faltsuak dira: sukaldaritza begetarianoa oso osasuntsua da, eta beste dieta batzuk adina elikagai batzen ditu; osagaiak Bergarako moduko herri baten eros daitezke, eta prezio onean; eta, plater kopuruari dagokionez, denetarik egin daiteke, hamaika konbinazio eta prestatzeko modurekin.

Ideia horiek guztiak konpartitzen dituzte astero Jesus Mari Kalboetxeaga sukaldariak eta Mireia Alberdi dietistak Bergarako Pertxa elkartean egiten duten sukaldaritza begetariano eta nutrizio ikastaroan. Bigarren aldiz egiten dute, eta orain ere, aurrekoan moduan, arrakasta ikaragarria izan da: 16 ikasle daude, baina 64 lagunek eman zuten izena.

DIETA ASKO BAINO HOBEA

Alde batetik, Kalboetxeagak bizpahiru errezeta banatzen ditu saioko, eta, taldeka, horiek prestatzen dituzte ikasleek; bestetik, Alberdik azaltzen du zergatik osagai edo prestatzeko modu horiek diren osasuntsuagoak. Sukaldariak dioenez, "esaten diet, nire ustez, denbora gutxian egostea hobe dela bi orduan egosten uztea baino; edo aluminiozko tresnak baino hobe dela altzairu herdoilezinezkoak erabiltzea... Guk gure ikuspuntua ematen diegu, baina ezer inposatu gabe. Zaila da ohiturak aldatzea: hala, hemen janaria oso bigun jateko ohitura dago, oso egosia".

Alberdik hori berresten du: "Askok uste dute okelak energia handia ematen duela, baina hobe da karbohidratoak hartzea –arroza, pasta, ogia...–; kirolariek horiek jaten dituzte". Gaineratzen du askok dieta begetarianoa kritikatzen dutela, elikagai guztiak ez dituelako; baina hauxe dio: "Galdetzen diot jendeari ea eurek benetan denetarik jaten duten; nik esango nuke gaur egun jende gehienak jaten duen modua baino osasuntsuagoa dela dieta begetarianoa".

HERRIAN EROSITAKO OSAGAIAK

Patata, sagar, kalabazin eta berenjena-hostopila, kalabaza-gaineerrea, moussaka begetala, barazki-pizza, artatxiki-pastela, kalabaza krema, babak zerealarekin... horrelako izen bitxi eta tentagarriak dauzkate ikastaroan irakasten dituzten platerek; sukaldaritza mota hori oso aberatsa den froga. Postre begetarianoak eta guzti egin daitezke: aurreko ikastaroan, arroz goxoa olo-esnearekin edo magdalena integralak egiten ikasi zuten. Osagaiak izenak bezain arraroak izango ote? "Ez; guk erabiltzen ditugun guztiak Bergaran erositakoak dira", dioskute adituek. Eta prezioa, zer? "Beharbada ohiko produktuak baino pixka bat garestiagoak dira; baina gure osasunean inbertitzen ari gara, eta ez litzateke horretan gasturik murriztu behar", gaineratzen dute.

Ikastaroa bukatuta, norberak ikasitakoa erabiltzen du bere bizimoduaren eta gustuen arabera; baina beste jateko modu bat ezagutzen eta sukaldari lanetan ondo pasatzen dute, behintzat, ikasleek.

IRAKASLEAK Mireia Alberdi dietista eta Jesus Mari Kalboetxeaga sukaldaria. LEIRE KORTABARRIA

ZERBITZUAK > PARKE BERRIA

Aldain, kanposantu zaharra dagoen lekuan, parke publikoa eraikiko dute

Gune hartan 9.192 metro koadro ditu Udalak bere egitasmoa gauzatzeko; proiektuaren baldintzen arabera, eremu zabala sortuko dute, berdeguneekin

ERALDATU 1994ra arte kanposantua izan zena parke bilakatuko du Udalak; argazkiak erakusten du zela dagoen orain. J. ARANTZABAL

UBANE MADERA > ARRASATE

Aldai kalean parke publikoa eraiki gura du Udalak. Hain zuzen ere, herriko kanposantua zegoen leku berean egin gura du hori. Izan ere, San Kristobalen kanposantu berria eraiki zuen Udalak 1994an, eta harrezkero, apurka-apurka Aldaiko kanposantu zaharra gorpuzkiz husten joan da Udala. nahiz eta oraindik badauden han kanposantu zaharrarekin lotutako hainbat eraikin.

26 EGUN PROPOSAMENAK EGITEKO

Kontuak kontu, inguru guztia eraldatuko dute laster eta parke bilakatu. Eta helburu horrekin lehiaketa publikoa deitu dute, urbanizazio proiektua zeinek idatziko duen aukeratzeko.

Deialdi hori joan den egubakoitzean, hilaren 12an, argitaratu zuten Gipuzkoako Buletin Ofizialean. Hori horrela, lehiaketara aurkezteko interesa daukanak gaurtik, hilaren 15etik aurrera aurkez dezake proposamena. Biztanleen Arreta Zerbitzuan egin behar du hori, 26 egun naturalen epean.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta bigarren eguaztenean erabakiko du Udalak lehiaketa zeini esleitu.

Lehiaketa irabazten duenak, asko jota, sei hilabeteko epea eta 30.000 euroko aurrekontua izango ditu gero proiektua idazteko.

EREMU ZABALA ETA BERDEA

Parke berriarendako 9.192 metro koadro ditu Udalak Makatzenara bidean, espazio hura jabetza publikoa da-eta.

Bestalde, gunearen hedadura kontuan hartzeaz gainera, proiektua idazten duenak honako aspektuak landu beharko ditu: saneamendua, zoladura, argiteria, lorezaintza eta zuhaiztiak, besteak beste. Kontuan hartu beharko du, baita ere, oinezkoendako pasabidea egokitu beharko duela parkera iristeko.

Hala, baldintza horien arabera, parke berriak berdeguneak izango dituen eremu zabala izango da, eta ez azkenaldian horren modan ipini diren eta zenbait herritarren kritikak jaso dituzten espazio zabal huts horien modukoa.

KULTURA > KULTURA ETXE BERRIA

Monterron itxi eta handik hiru astera zabalduko du Udalak kultura etxe berria

Hilaren 22an itxiko dute orain arte kultura etxe izan den Monterron jauregia; bizpahiru aste behar dituzte lekuz aldatzeko

ITXI Hilaren 22an itxiko dute Monterron. JOSETXO ARANTZABAL

U.M. > ARRASATE

Otsailean estreinatuko dute arrasatearrek kultura etxe berria; hain zuzen, otsailaren erdialdetik aurrera. Izan ere, Udalak iragarri du urtarrilaren 22an itxiko dutela Monterron, hango materiala eraikin berrira lekuz aldatzeko.

Leioako enpresa batek egingo du hori. Besteak beste, 27.000 liburu eta aldizkari lekuz aldatu beharko ditu, eta bizpahiru aste behar dituzte horretarako. Horrenbestez, urtarrilaren 22tik otsailaren erdialde ingurura arte, ez da liburutegi zerbitzurik izango.

PAZIENTZIA IZAN BEHAR

Horren aurrean, Udalak pazientzia eskatu gura die Monterrongo erabiltzaileei: "Herritarrei eskatuko nieke uler dezaten halako leku aldaketa denon onerako dela; badakigu bizpahiru astean herrian halako zerbitzurik ez egotea hutsunea dela, eta eraikin berrian hasteak ere ekarriko du trabaren bat edo beste. Horregatik, pazientzia behar dugu", dio Udaleko Kultura Saileko teknikari buru Jon Garaik.

LANA > LANPOSTU PUBLIKOAK

Oraindik ez dituzte zehaztu udal lanpostuetarako azterketen datak

Udalak emandako argibideen arabera, epaimahai-kide batzuk izendatzea falta da, eta hori ez dago Udalaren esku

U.M. > ARRASATE

Zazpi lanpostu finko betetzeko deialdia egin zuen Udalak iazko azaroan. Hain justu ere, honako lanpostu hauek bete gura ditu: liburuzain eta liburuzain laguntzaile bana; bi udaltzain, arotza eta delineatzailea. Lanpostu finkoak izanda, funtzionario izaera izango dute.

Deialdi horretan izena emateko epea abenduan itxi zuen Udalak. 256 lagunen eskaerak jaso zituen.

IZANGAIEN ZERRENDAK

Halako deialdietan ohi denez, eskaera guztiak jaso eta gero, Udalak ikusi behar du ea guztiek betetzen dituzten beharrezko baldintzak. Horren ostean, argitaratu behar du azterketak egiteko onartu dituztenen eta onartu ez dituztenen zerrenda. Eta horrekin batera, jakinarazi behar du, baita ere, noiz izango den lehen azterketa eta baita ere azterketak zuzentzen ibiliko den epaimahaiko-kideen izenak ere.

Baina oraindik ez dute egin halakorik. Udaleko Pertsonal Sailak adierazitakoaren arabera, horren ondorioz, jendea urduritzen hasi da: "Ikasten jarraitu behar duten edo ez jakin gura dute, besteak beste; eta askok deitu dute hona", dio sail horrek.

BI KIDE FALTAN

Halaber, Pertsonal Sailak argitu duenez, epaimahaia osatuko duten bi kide izendatzea falta da oraindik. "Epaimahaietan, kide bat izaten da IVAPekoa, administrazioko ordezkaria. Haien izenak eskuratu arte, ezin dugu ezer argitaratu. Kontuan hartu behar da Gabonak tartean izan direla, eta horrek atzeratu egin duela prozedura. Dena den, IVAPekoak abisatuta daude eta espero dugu laster izendatuko dituztela kideak".

HIRIGINTZA > IRALA KALEA BERRITZEKO LANAK

Martitzenetik aurrera ezingo da aparkatu Domingo Irala kalean

Lanek gutxienez sei hilabete iraungo dute eta zamaketarako baino ezingo dira ibili autoak

Seminarioko patioan 225 ibilgailurendako aparkalekua egingo dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Domingo Irala kalea berritzeko lanak abian dira. Lehenengo fasearekin hasi dira. Hau da, Gasparreko garajea eta Sagarpe bota zituzten eta orain hasiko dira kalearen erdi aldean plazatxoa egiteko obrak.

Joan zen astean ziren hastekoak makinak lanean, baina obrako arduradunak jakinarazi digu bihar, martitzena, iritsiko direla makinak Domingo Irala kalera.

Gaur, astelehena, ibilgailuak oraindik aparkatu ahal izango dira Irala kalean, baina kontuan hartuta biharko hutsik laga behar dela, bestela udaltzainek neurriak hartuko dituzte.

Lanek gutxienez sei hilabeteko iraupena izango dute eta, bitartean, ibilgailuak zamaketa lanetarako bakarrik igaro ahal izango dira Domingo Irala kaletik. Izan ere, pasabidea estutu egingo da makinak sartu ahala.

APARKALEKU BERRIAK

Irala kaleko aparkalekuak kentzen dituztenean ibilgailuendako beste lekurik egokituko duten galdetu diogu Victoriano Gallastegi alkateari. Bere esanetan, "herrian ez dago aukera askorik. San Martin plaza, esaterako, berez ez da aparkatzeko tokia baina orain autoz beteta egoten da. Aparkaleku berriak egin artean, berez, oso zuzena ez bada ere, bertan aparkatzeko aukera egongo da".

Aparkaleku berriak, baina, egitekoak dira herrian. Udalak erosia du Seminarioko patioa eta bertan aparkalekua egitea da asmoa. Alkatearen esanetan, "225 autorendako tokia egongo da Seminarioko aparkalekuan".

Oraindik erabakitzeke dago, ordea, Seminarioko aparkalekua egiteko lanak noiz hasiko diren. Izan ere, Aranzadi Ikastolak eskatu du Kilometroak jaia egin artean ez hasteko lanekin, toki estrategikoa izan daitekeelako ospakizunerako. Negoziazioetan ari dira eta baliteke urri ostean abiaraztea lanak.

Aparkaleku berria egokitutakoan Irala kalea oinezkoendako bakarrik izango den edo ez erabakitzeko dago. "Gero ere autoendako bidea egongo da, orain bezala, baina ezingo da aparkatu. Egunen baten, ordea, oinezkoak bakarrik ibiltzeko kalea izango da baina oraindik ez dago erabakita noiz. Horretarako beste alternatiba batzuek eman behar zaizkie gidariei autoak lagatzeko", esan digu Victoriano Gallastegi alkateak.

LITERATURA

Paddy Rekalderen liburu aurkezpena

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

The Clash taldeari buruzkoa da Paddy Rekalde idazleak idatzitako azken liburua. Eguenean aurkeztu zuen *The Clash; punk, rock and roll, reagge matxinada* izeneko liburu hori Elgetako Espaloia kafe antzokian. Liburuaren gaineko solasaldia egin zuen bideoaz lagunduta.

DISKOZ DISKOKO HISTORIA

Angiozarren irakasle den idazle deustuarrak idatzitako liburua 5. Haria bildumarako lana da. Liburuan, taldearen testuingurua kokatzen du eta, hortik abiatuta, diskoz diskoko historia kontatzen du, taldearen letra esanguratsu batzuk tartekatuz.

JAIAK > SAN ANTON AUZOKO OSPAKIZUNAK

San Antonen ermitara igoko dira auzotarrak etzi, eguaztena

A.G. > BERGARA

Hiru auzok jaiak ospatuko dituzte hil honetan. Lehenengoa San Anton auzoa izango da. Auzoari izena ematen dion santuaren egun etzi, eguaztena, ospatuko dute; horretarako, auzoko senitartearen batzarra, San Antonen baselizara igoera eta eskaintza, eta meza nagusia izango dira. Ospakizunak izango dira ere asteburu osoan: zapatuan, auzo-txikiteoa, 25. Mus Txapelketa eta afaria izango dira ekintza nagusiak, eta domekan, meza, 30. Anton Deuna Krosa, txapelketak…

PARTEITTIN ETA UBERAN

Hurrengo, Angiozarko Parteitti auzoak ospatuko ditu jaiak, San Bixenteren omenezkoak hauek; eta urtarrilaren 25etik 29ra bitartean, San Pauloren omenezko jaiak ospatuko dituzte Uberako auzotarrek.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Antxon Sasiaini ongietorria egin zioten

Abenduaren 21ean iritsi zen Antxon Sasiain preso ohia Bergarara, aske utzi ostean. 2002an Frantziako poliziak atxilotu eta 2005ean estraditatu zuten Espainiara. Zapatuan egin zioten ongietorria plazan. Aurreskuaren ostean, herriko hainbat taldetako ordezkariek opariak eman zizkioten, eta oraindik preso daudenen senideek, krabelin bana. Enaitz Alustizak bertsoak kantatu zizkion, eta Askatasunaren idatzi bat irakurri zuten gero. Ekitaldiaren ostean manifestazioa izan zen eta, gero, afaria Sasiainen etorrera ospatzeko.

HITZARMENA Victoriano Gallastegi alkatea sinadura ekitaldian. EUDEL

BAKE ERAIKUNTZA > HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Bergarako Udala, bake prozesua bultzatzeko sarean

Hamaika herrik hartuko dute parte Jaurlaritzak eta Eudelek abiarazitako esperientzia pilotuan

I.A. > BERGARA

Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek, Euskadiko Udalen Elkarteak, hitzarmena sinatu dute bakearen eraikuntzan herritarren parte-hartzea bideratzeko.

Ibarretxe lehendakariak hitzarmena sinatu ostean hau esan zuen: "Bakea lantzeko eta lortzeko, beste aukera bat lortzeko, sare soziala eratzea beharrezkoa da. Ezin dugu atzera buelta onartu, alderdien arteko inkomunikazio garaira, hilketen eta estortsioen garaira".

HAMAIKA HERRI

Ekimenarekin bat egin dute EAEko hamaika udalek, tartean Bergarakoak. Herri horietan esperientzia pilotuak abiaraziko dituzte. Ekimena herriz herri bultzada emateko dela gogorarazi zuen Ibarretxek: "Akordioaren bidez nabigazio tresnak mahai gainean jartzen dira baina hortik aurrerako hitza herritarrena da".

Parte hartuko duten udalen ordezkari Eudeleko presidenteak esan zuen, "normalizazio politikorako eta bakerako bidean parte-hartze aktiboa indartu eta bideratu nahi duela prozesuak".

Ekimenaren koordinatzailea Gorka Espiau Elkarriko zuzendaritzako kide ohia izango da. Bergarako alkateak esan digunez, oraindik ideia baino ez dute esku artean eta aurrerago jakinaraziko zaie herritarrei proiektuan nola parte hartu.

ARANTZAZU > APARKALEKUA BERRANTOLATUKO DU ALDUNDIAK

Beheko aparkalekuan utzi beharko dituzte autoak mendizaleek Arantzazun

Domeka eta jai egunetan aparkaleku nagusia itxita egongo da pibote batzuekin 10:30ak arte; langileak eta auzokoak txartel edo urrutiko aginte bidez sartuko dira

APARKALEKUA Mezatara doazenek eliza pareko aparkalekuan autoa utzi ahal izatea da proiektuaren helburua. O.E.

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Arantzazuko aparkalekua berrantolatzeko proiektua onartu du Gipuzkoako Aldundiko Diputatuen Kontseiluak. Helburua da mendizaleek autoak kapera ondoko aparkalekuetan uztea, eliza pareko aparkaleku nagusia libre uzteko mezatara doazenendako.

PIBOTEAK ETA TXARTELAK

Hainbat obra egin eta elementuak jarriko dituzte Arantzazun hori egiteko: automatikoki ezkutatzen diren piboteak, informazio panelak eta kontrol kamerak, adibidez. Auzokoendako eta Arantzazun negozioak dituztenendako, sarrera-kontrola jarriko dute, txartelen bidez edo urrutiko aginteak erabiliz. Neurri horiekin, goizean doazen mendizaleek aparkaleku nagusia ez betetzea lortu gura dute. "Mezatara datozenek elizatik urruti utzi behar izaten dituzte autoak, eta pertsona edadetuek edo gutxituek zailtasunak izaten dituzte elizara heltzeko. Hori gehiago ez gertatzea nahi dugu. Dena dela, piboteen neurri hori domeka eta jai egunetan aplikatuko da bakarrik. 10:30ean jaitsiko dituzte piboteak aparkaleku nagusira sartzeko. Bide batez, Arantzazu erditik ibiltzen den auto kopurua ere mugatu gura dugu horrela", dio Pello Zabala frantziskotarrak.

Proiektuak 215.000 euroko aurrekontua du. Laster adjudikatuko dituzte obrak eta bi hilabeteko epea izango dute lanak egiteko. Zabalak esan digun moduan, udarako gura dituzte ikusi lanak bukatuta.

HIRIGINTZA > BIDEBARRIETA KALEA

Bidebarrieta kalea autoendako eta oinezkoendako izango da

Kiroldegiko instalazio berrien ondoko zatia autoek eta oinezkoek konpartituko dute, eta plataforma bakarra izango du

Leku horretako plazatxo berria eta lur azpiko aparkalekuen bigarren faseko lanak lehiaketara doaz

A.G. > OÑATI

Eraberritzen ari diren Bidebarrieta kaleko zatia, kiroldegiko instalazio berrien ondoan dagoena, oinezkoak eta autoak batera ibiltzeko egokitzea erabaki du Udalak. Horrez gain, eta lanak lehenbailehen bukatzeko, plazatxo berria eta lur azpiko aparkalekuen bigarren fasea bukatzeko lanak lehiaketara ateratzea onartu du Udalbatzak.

Plataforma bakarra izango du kalearen zati horrek, eta oinezkoak eta autoak nondik joan bereizteko, hainbat kolore eta egitura izango ditu gainazalak, baina ez koxka edo espaloirik. Horrekin, gainera, tarte horretan gidariak astiroago eta arreta handiagoarekin ibil daitezen lortu gura da.

BI PROIEKTU

Bilkura berean, Udalbatzak gune horretan egingo diren bi proiektuak egiteko lanak lehiaketara ateratzea erabaki zuen; horrela, lehenbailehen bukatuta egotea gura dute.

Kiroldegi aurrean egongo den plazatxoa urbanizatzeko proiektua da bat. Umeendako jolastokia egongo da hor, eta, aurrean, lur azpiko aparkalekuaren sarrera egongo da.

Aparkalekuaren bigarren faseko lanak dira bigarren proiektuaren mamia. Suteen aurkako sistemak, argiztapena eta aireztapena dira fase horretan egin beharreko lanak.

BALDINTZAK

Plazatxoa eta aparkalekua egokitzeko lanek 890 mila euroko aurrekontua izango dute, eta behin lanak zeinek egingo dituen erabakita, lau hilabeteko epea izango du esleipendunak lanak bukatzeko.

ETXEBIZITZA > DEIALDI PUBLIKOA

Etxebizitza sozial bat errentan hartzeko eskaerak, hilaren 24ra bitartean

Baldintzetako bat da eskatzaileak gutxienez hamabi urtean erroldatuta egon behar duela Oñatin

A.G. > OÑATI

Udalak etxebizitza sozial bat dauka errentan emateko, eta berau adjudikatzeko lehiaketa publikoa deitu du. Bidebarrieta kaleko 24. zenbakian dago, 1-C atarian. Eskaerak udal bulegoetan aurkeztu behar dira, eta urtarrilaren 24ra arte dago zabalik horretarako epea.

Etxebizitza hori errentan hartzeko baldintzak GAOko 2006ko apirilaren 12an argitaratu ziren berberak dira; beste batzuen artean, eskatzaileak gutxienez hamabi urtean Oñatin erroldatuta izan behar du. Errenta finkatzeko, eskatzaileen egoera sozio-ekonomikoa hartuko da kontuan. Baldintza zerrenda osoa udal bulegoetan dago.

LEHENENGOZ, APIRILEAN

Bidebarrieta kaleko 22. eta 24. zenbakietan errentan emateko zazpi etxebizitza sozial zituen Udalak. Lehenengo deialdi publikoa joan den apirilean egin zuen, baina aurkeztutako eskaeretatik, seik bakarrik betetzen zituzten baldintza guztiak; horrenbestez, etxebizitza bat eman barik geratu zen.

Adjudikatu ziren sei etxebizitzen esleipen prozesua orain bukatu da, eta eman barik geratu zena emateko deialdia egitea erabaki du Udalak.

ARETXABALETA > HIRIGINTZA

Otalorako lanak martxa onean doaz, eta gidariek ondo hartzen dituzte eragozpenak

Lehen zatia bukatuta, Untzillako bidegurutze inguruko lanak hasi berri dituzte

Trafiko desbideraketa nagusia sarrerako erdi-biribiletik San Migelera artekoa da

SANEAMENDUA Otalora kalea zulatu egin behar dute saneamendu instalazioak berritzeko. MIRARI ALTUBE

A.G. > ARETXABALETA

Otalora kaleko saneamendu eta eraberritze lanen bigarren zatia hasi da. Urrian hasi ziren, eta eliza paretik Santutxu ingurura arterainoko lanak egin dituzte. Joan den astetik aurrera, Untzillako bidegurutzeko lanak egiten dihardute.

Lan hauek Otalora kalea eta herriko instalazioak hobetzeko dira: besteak beste, lur azpitik dauden hodiak berritu behar dituzte eta, kalea apurtu beharra dagoenez, bide batez, kalea bera ere berritu egingo dute.

DESBIDERAKETA NAGUSI BAT

Oraingoz, hobekuntzak barik, trabak dira herritarrek gehien igartzen dituztenak. Izan ere, zirkulazio aldaketa handiak eragiten ari dira, eta oraindik ere hala jarraitzen dute.

Zirkulazio desbideraketa nagusi bat dago: hain zuzen, Arrasatetik Aretxabaletara noranzkoan, herri sarreran dagoen erdi-biribilgunetik San Migel auzunera joan beharra dago, Untzillara hartu beharrean, eta handik Lausitta kalera irteten da. Horrez, gain, "unean uneko desbideraketak" egiten jarraituko dute, Aretxabaletako udaltzain buru Martin Garaik dioskun moduan. Desbideraketa horiek lanek aurrera egin ahala erabakitzen ditu Amaral enpresak, lanon arduradunak, aldez aurretik nondik nora ibiliko diren zehaztea zaila delako.

Edozein modutan, aretxabaletarrak ondo eta pazientziarekin erantzuten ari direla diosku Garaik; eta lanen gainean, hauxe dio: "Oso ondo doaz, martxa onean, eta gutxi gorabehera aurreikusitako epeak beteaz".

Oraindik ere, beste bost edo sei hilabetez jarraituko dute Otalorako obrek.

ESKORIATZA > KULTURA

Zinema, disko aurkezpena eta dokumental emanaldia

Hainbat kultura hitzordu dituzte eskoriatzarrek datozen egunotan, bai Udal Kultura Sailaren eskutik, bai Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik ere.

Inkernu tabernan, *La haine (El odio)* filma emango dute etzi, eguaztena, 22:00etan; bestetik, datorren egubakoitzean, 19, *Atzoko gabaz* izeneko diskoa aurkeztuko du Kemen Lertxundik (argazkian), hori ere Inkernun.

Bestetik, Udalak antolatuta, Andoni Ormazabalek *Lehoinabarraren aztarna* dokumentala aurkeztuko du bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan. Bere anaia zen Xabierrek Sobietar Batasun ohiko bost gailur altuenetara igoerak kontatzen ditu.

GOIENKARIA

ARETXABALETA > HEZKUNTZA

Hilaren 20an hasiko da jolasen ikastaroa

A.G. > ARETXABALETA

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu duen kantu eta jolas ikastaroak honako hiru saioak izango ditu: urtarrilaren 20an eta 28an, eta otsailaren 3an, eta ez urtarrilaren 23an, argitaratu izan den bezala.

Eskolak 2 eta 8 urte bitarteko umeen aita-amei dago zuzenduta. Helburua da umeen artean, jolasean euskara sustatzea, baina euskaraz ez dakiten gurasoak ere berdinberdin joan daitezke.

Eskolak 10:00etatik 12:00etara bitartean izango dira Iralabarri plazako gaztelekuan, eta izena emateko herriko ikastetxeetara joan behar da, edo Udal Euskara Zerbitzura deitu. 943 71 78 62 da udaletxeko telefonoa.



Gurasoak ikastaroan. M.A.

ESKORIATZA > ZOZKETA

Gabonetako zozketako sari batzuk, jasotzeko

L. K. > ESKORIATZA

Herriko merkatariek egindako Gabonetako zozketako saridun nagusia oraindik ez da agertu; hain zuzen, 1.000 euro eta afaria dagozkion 18.281 zenbakidun txartelaren jabea. Horrez gain, 100 euroko bost sari banatu dituzte, eta bi saridun falta dira.

Txartel horien jabeek urtarril osoa dute sariak jasotzera joateko. Valentin Gomez antolatzaileetako batek dioskunez, "irabazlea ez denez agertu, jendeak badu ardura hori: ea zeini tokatu zaion, zein den zenbakia..."

Eskoriatzako merkatariek hirugarren urtez egin dute Gabonetako zozketa, eta "oso pozik" daude jendearen harrerarekin.

ELGETA > ARGIZTAPEN ZERBITZUA

Iberdrola konpainiak 400.000 euro erabili ditu azpiegitura elektrikoa berritzeko

Berrikuntzen ostean, sare elektrikoan elurte edo ekaitzengatik sortutako matxurak nabarmen gutxituko dira

ASPIESTAZIOA Iberdrolako ordezkariak alkatearekin aspiestazio berrian. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Eguenean, urtarrilaren 11n, Iberdrolako Gipuzkoako zonaldeko banaketa buru Carmen Pages izan zen Elgetan. Salbador kalearen amaieran, Arrasaterako bidean, dagoen azpiestazio elektriko berria ikusteko egin zuen bisita. Bide batez, azpiestazioaren ezaugarri teknikoak eta egindako inbertsioak azaldu zituen.

HORNIKUNTZA KALITATE HOBEA

Iberdrolak 400.000 euroko inbertsioa egin du Elgetako azpiestazio elektrikoa hobetzeko, baita zenbait elektrizitate linea eraberritzeko ere. Zehazki, egindako lanak dira erabat berritzea elektrizitateko instalazioaren indarra 30 kilo voltetan. Horretarako, aireko korronte-hartunea lurperatu dute eta fidagarritasuna areagotu. Bi sistema berri ere ipini dituzte 30 eta 13 kilo voltetan; horiek teknologia berrienak dituzte, beraz, horniketa elektrikoaren kalitatean hobekuntza nabarmenak ekarriko ditu.

Gainera, azpiestazio berriak urrutiko agintea izango du, eta gertakari larririk izanez gero, edo argia joaten bada, matxura konpontzeko orain arte baino denbora gutxiago beharko da: "Orain, zuhaitz bat jausiz gero lineen gainera eta argia joan, segituan ipiniko dute berriz abian". Berrikuntzekin, bestalde, hornikuntza elektrikoa berme handiagoz egingo da Elgeta inguruan. Sare elektrikoan elurte edo ekaitzengatik sortutako matxurak nabarmen gutxituko dira.

Iberdrolak Euskal Herrian guztira 159 azpiestazio elektriko ditu, eta energia elektrikoa bihurtzeko 10.025 zentro. Oso tentsio altuko eta tentsio altuko lineetan 813 kilometro ditu; tentsio erdikoak 8.424 kilometro, eta 14.195 kilometro tentsio baxukoak.

LEINTZ GATZAGA > URA

Gaztainuzketako etxeek eta jatetxeak badute ura

Marototik bideratu dute ura, eta Udala pozik dago lanak azkar egin direlako

L. KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA

Konpondu da Gaztainuzketako ur horniketaren arazoa, "azkar eta ondo", Jon Sasiain udal arduradunaren esanetan.

Hain zuzen, Marotobasotik bideratu dute ura, hango poste azpiko iturburutik. 27.000 euroko aurrekontua izan zuten bideratze lanek, eta egubakoitzean bertan bukatu zituzten; horrek azaltzen du udal ordezkarien poza.

HIRU ASTEAN

Gaztainuzketako txaboletan ea jatetxean hiru aste zeramatzaten ur barik, Lapikoxuluetako iturburua, haiek hornitzen zituena, lehortu egin zelako. Marotoko iturburua egokitu bitartean, zisterna-kamioien bidez hornitu zituzten etxeok.

Oraindik ez dago argi Lapikoxuluetako iturburua zergatik lehortu den, baina baliteke autobideko lanek zerikusia izatea. Hori dela eta, autobideko lanen arduradunekin hitz egin du Udalak.

HORNITUTA Mendi etxolek badaukate ura. IRATI AGIRREAZALDEGI

ARAMAIO > OMENALDIA

Dantzariei omenaldia gertatzen hasiak

Aramaioko dantza taldea sortu zela 50 urte bete ziren iaz, baina sortzaileak aurten omenduko dituzte. Hain zuzen, gaur egungo dantzariek erabaki zuten omenaldi hori antolatzea, eta atzo, domeka, batu ziren lehenengo aldiz entseguak antolatzeko.

Omenaldian taldeko sortzaileak eta oraingo dantzariek hartuko dute parte, eta hainbat dantza egingo dituzte.

JOSETXO ARANTZABAL

ANTZUOLA > ODOL EMAILEAK

Odol ateratzea izango da eguen arratsaldean Olaranen

Azken aldian jaitsi eginda emaileen kopurua; urtean batez beste 190 poltsa betetzen dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako Odol Emaileen batzordeak herritarrei dei egin die urtarrilaren 18an, eguenean, Olaranen, 17:30ean hasita egingo duten odol ateratzerako.

Urtean hiru odol ateraldi egiten dituzte eta hurrengoak maiatzean eta irailean izango dira. Batez beste, 190 odol poltsa ateratzen dituzte urtero. Batzordeak esan digu egon direla ateraldiak 100 poltsa betetzera iritsi direnak, baina aspaldian jaitsita dagoela kopurua.

EMAILE GEHIAGO BEHAR DIRA

Jaitsiera honi aurre egiteko, odol emaile gehiago behar dituzte herrian. Batez ere animatu nahi dituzte gazteak, eta esan nahi diete beldurra alboratzeko, analisiak ere bertan egingo dizkietela.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!
DEBARRI / Babeslea
ARKAUZ GRUPO ARTXABALETA 1950•2007 ARRASATE

Elgeta hizpide

DEBARRI
Patxi Basauri, Elgetako alkatearekin berbetan
Asteazkena 17, 21:15ean
Alberto Gorritibereak aurkeztuta

Aurrez galderak egiteko: www.goiena.net webgunean edo 943 71 23 91 telefono zenbakian.

Kirola

> FUTBOLA
Zarautz liderraren aurka aukerarik ez zuen izan Mondrak Atxabalpen **> 18**

> ESKUBALOIA
Ford Mugarrik galdu egin zuen Egiaren aurka Iturripen **> 19**

> ERRUGBIA
Arrasateko gazte mailako taldeak porrot egin zuen Gernikarekin **> 17**

> PILOTA
Olaizola I.ak eta Belokik ez zituzten Irujo eta Goñi III.a menderatu **> 20**

SASKIBALOIA > GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO FINALERDIAK

Arrasateko bi taldeek galdu egin zituzten joaneko partiduak

KADETEAK Easoren aurka galdu zuen kadete mailan Mugarri Alkesak: 42- 91

GAZTEAK Puntu bateko desabantaila menderatu beharko du gazte mailako taldeak Iturripen

EUSKADIKO LIGA Kanporaketa menderatzen dutenek Euskadiko Txapelketa jokatuko dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Hitzordu historiko bikoitza izan dute aste bukaeran Ointxe Arrasate Saskibaloi taldekoek. Kadete eta gazte mailetako taldeek Gipuzkoako Txapelketako finalerdietako joaneko partiduak jokatu dituzte, baina Arrasateko bi taldeek galdu egin dute.

Kanporaketa menderatzen duten taldeek Euskadiko Txapelketa jokatzeko aukera izango dute.

MUGARRI ALKESA-EASO

Iturripen jokatu zen, zapatuan, kadete mailako finalerdia. Mugarri Alkesa eta Easo aritu ziren nor baino nor.

Partiduak zuen garrantziagatik edo, bi taldeek nahiko urduri hasi zuten norgehiagoka. Donostiako taldeak hartu zuen abantaila markagailuan (0-6). Bada, arrasatearrak gai izan ziren partidua berdintzeko (6-6). Berdinketa hura izan zen partiduko bakarra. Lehenengo laurdena bukatzerako, Easo taldeak berriro tartea zabaldu zuen markagailuan (10-20).

Bigarren laurdenaren hasieran, etxeko taldeak lau puntu egin zituen jarraian. Bada, ez zen nahiko izan donostiarrek zuten errenta murrizteko. Tarte hartan, arrasatearrek puntu gutxi lortu zituzten; bederatzi besterik ez. Arrasateko taldeak, gainera, huts asko egin zuen paseetan. Horregatik guztiagatik, atsedenean Donostiako taldeak 17 puntuko abantaila zuen.

Errenta harekin, eta bi taldeek kantxan erakutsitako jokoa ikusita, ematen zuen atsedenerako partidua erabakita zegoela.

Partiduko azken bi laurdenetan, Easo izan zen nagusi. Poliki-poliki, markagailuko errenta handitzen joan zen, amaierako emaitza lortu arte.

Beraz, aste bukaeran jokatuko den itzulerako partiduaren aurretik, kadete mailako kanporaketa ia erabakita dagoela esan daiteke.

LASAO-MUGARRI ALKESA

Azpeitian jokatu zen partidua galdu arren, gazte mailako kanporaketa Iturripen erabakiko da domekan. Mugarri Alkesak 67-66 galdu zuen Lasao Altzariak taldearen aurka. Jose Mari Baltzategiren taldeak garaipena eskura izan zuen, partiduko azken jaurtiketa hainbeste izan zen-eta, baina Beñaten hiruko jaurtiketa ez zen saskian sartu.

Laugarren laurdenean egin zion ihes garaipenak Arrasateko taldeari. Azken laurdenaren hasieran, puntu bateko errenta zuen Mugarri Alkesak (48-49). Edozelan ere, tarte hartan bederatzi puntuko errenta lortzeko gai izan ziren: 52- 61 erakusten zuen markagailuak norgehiagoka amaitzeko lau minutu falta zirela. Bada, azpeitiarrek 15-5eko partziala lortu zuten lau minutuan. Hortaz, Mugarri Alkesari ihes egin zion garaipenak.

Zapatuko partidua galdu arren, kanporaketa Arrasaten erabakiko da. Puntu bateko desabantailari egin beharko diote aurre arrasatearrek. Lehia Iturripen jokatuko da, domekan, arratsaldeko 6etan.

Kanporaketa menderatzen duenak Euskadiko Txapelketa jokatzeko aukera izango du.

ERASORA Mugarri Alkesako jokalari Igoa (9 zenbakiduna) eta Barrena (14 zenbakiduna) erasora irteten. JOSETXO ARANTZABAL

PUBLIKOA

Saskibaloi zaleek Iturripeko harmailak bete zituzten

Ez zuten hutsik egin. Kadete mailako taldeak zuen hitzordu garrantzitsuaren aurrean, zaleak Iturripera hurbildu ziren. Turuta doinuak nagusi izan ziren Iturripeko harmailetan.

Aste bukaeran, beste bi hitzordu dituzte zaleek: gazteek Gipuzkoako Txapelketako finalerdietako itzulerako partidua jokatuko dute domekan, Iturripen, arratsaldeko 6etan.

Bestalde Mugarri Alkesak zapatuan, ordu berean, jokatuko du Iturripen bigarren faseko lehen partidua Tabirakoren aurka.

Zaleak euren taldeari begira. JOSETXO ARANTZABAL

Antzuola Kirol Elkartea 06-07 (Futbol saila)

2. ERREGIONAL MAILA

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Xabi Azkarate, Jon Godoy, Jon Ander Castro, Mikel Ezkio, Josu Asensio, Iñaki Arbulu, Ibon Urtzelai, Iñaki Agirre eta Jon Arregi. **Erdiko ilaran:** Iban Unanue, Ekaitz Olalde, Pablo Olalde (delegatua), Jose Angel Fernandez (lehendakaria), Andoni Azkargorta (entrenatzailea), Igor Larrea (2. entrenatzailea), Aitor Godoy, Ibai Azkarate eta Aitor Berraondo. **Beheko ilaran:** Luis Franco, Jon Pagaldai, Auritz Guridi, Josu Segurola, Unai Madariaga, Jabi Berraondo, Gotzon Zabalo, Jon Alberdi eta Ieltxu Mendizabal. Argazkian Xiker Iparragirre falta da.

GAZTE MAILA

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Ander Arbulu, Hodei Arregi, Enaitz Lizarralde, Jon Iturbe eta Nikolas Gimeno. **Erdiko ilaran:** Eneko Mugika, Asier Longares, Aitzol Iturbe, Karlos Azkarateaskasua (entrenatzailea), Jose Angel Fernandez (presidentea), Jon Olivares eta Andoni Gartzia. **Beheko ilaran:** Gorka Arrizabalaga, Xabi Arbulu, Aitor Jauregi, Josu Sagasta, Ibai Zabalo eta Julen Fernandez. Argazkian Luis Crespo eta Maikel Sagasta falta dira.

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
Zabalo Iturgintza S.L.
ANTZUOLA APAINKETAK
Tomas Guezalaga
TXOMIN GARAJEA
Servimasa

PREFERENTE MAILA > LIDERRA, ATXABALPEN

Mondrak ez zuen aukerarik izan Zarautz liderra menderatzeko

MONDRA
1-3
ZARAUTZ

Mondra > Ander, Loiti, Illart, Garmendia (Muxi, 55. min.), Laspiur, Ruben (Alartzia, 66. min.), Heriz, Keixi, Ekain, Gotzon eta Aranabarri.

Zarautz > Iñaki, Igor (Javier, 84. min.), Xabier, Josean (Ibon, 84. min.), Iñigo, Ruiz, Jon (Carlos, 35. min.), Abel, Alex, Joseba (Unax, 78. min.) eta Luis (Aritz, 89. min.).

Epailea > Blanco jauna. Ondo egin zuen bere lana. Alonso eta Aizmendi jaunak izan zituen laguntzaile.

KONTROLA Mondrako jokalari Gotzon Urtzelai baloia kontrolatzen. JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Zarautz liderraren aurka bukatu zuen Mondrak preferente mailako lehen itzulia. Igor Gordobilen taldeak partidua berdintzea lortu zuen arren, Zarautzek eskuratu zuen garaipena. Hala, Mondrak lehenengo itzulia 27 punturekin amaitu du.

MONDRA, GAIZKI

Denboraldi honetan Mondrak etxean jokatu dituen partidu gehienen antzera, zapatuko norgehiagokak bi zati oso ezberdin izan zituen; bai, behintzat, Mondrak egindako jokoari erreparatuta.

Lehenengo zatian, nahiko eskas jokatu zuen Arrasateko taldeak. Zarautzek, aldiz, hobeto menderatu zuen partidua. Hala, preferenteko liderrak 20. minutuan egin zuen lehen gola; Alex izan zen golegilea. Golaren ondoren, norgehiagoka zertxobait parekatu zen; bi taldeek gol aukerak sortu zituzten. Baina Zarautz iritsi zen atsedenera abantailarekin.

BIGARREN ZATIA

Bigarren zatiko lehen minutuetan, Igor Gordobilen taldeak kemen handiagoa erakutsi zuen. Hala, berdinketaren gola lortu zuten arrasatearrek 65. minutuan, Ekainek egindako golari esker. Edozelan ere, hurrengo jokaldian Mondrak partidua pikutara bidali zuen. Alboko sake batean egindako akats baten ondorioz, Zarautzek bigarren gola egin zuen, eta partidua hantxe amaitu zen.

Mondrak aurrera egin zuen, baina Zarautzek duen sendotasuna erakutsi zuen. Liderrak, gainera, hirugarren gola egin zuen.

UDAK ETA ALOÑAK, BERDINDU

Felix Recioren taldeak 2-2 egin zuen Trintxerperen aurka. Aretxabaletako taldeak lehen itzulia, 24 punturekin amaitu du.

Aloñak ere berdindu egin zuen Idiazabalen aurka, 3-3. Aitor Oruetaren taldeak 21 puntu eskuratu ditu lehen itzulian.

LEHENENGO ERREGIONALA > URTEKO LEHENENGO PUNTUA

Liderrak puntu bakarra eraman zuen Agorrosinetik

Zapatuko berdinketarekin, Bergarak urteko lehenengo puntua eskuratu du; izan ere, joan den astean 0-1 galdu zuen Allerruren aurka

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Liderraren aurka puntu baliotsua eskuratu zuen talde mahoneroak zapatuan etxean. Zumaiako bi goleko errentarekin iritsi zen atsedenera; hala ere, etxekoak ez ziren behera etorri eta, bigarren zatian, norgehiagoka berdintzea lortu zuten. Talde mahoneroaren lehenengo gola Errastik egin zuen, eta berdinketa Canasek lortu zuen, penaltiz.

Bergara zazpigarren postuan dago, 25 punturekin. Datorren astean, Pedruskoren aurka jokatuko dute, Elgoibarren.

ATZEALDEAN Andoni Nafarrete baloia buruarekin jotzen. JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Puntuak	JP
1. **Zarautz**	**38**	17
2. **Hernani**	**30**	17
3. **Anaitasuna**	**29**	17
4. **Berio**	**28**	17
5. **Mondra**	**27**	17
6. **Zestoa**	**26**	17
7. **Ordizia**	**25**	17
8. **UDA**	**24**	17
9. **Touring**	**24**	17
10. **Aloña Mendi**	**21**	17
11. **Pasaia**	**20**	17
12. **Trintxerpe**	**20**	17
13. **Hondarribia**	**18**	17
14. **Idiazabal**	**18**	17
15. **Mutriku**	**16**	17
16. **Aurrera**	**16**	17
17. **Urola**	**15**	17
18. **Martutene**	**15**	17

Emaitzak

Trintxerpe-Aretxabaleta	2-2
Mondra-Zarautz	1-3
Idiazabal-Aloña Mendi	3-3
Berio-Zestoa	1-0
Anaitasuna-Aurrera	3-1
Touring-Ordizia	0-0
Mutriku-Hondarribia	0-0
Urola-Hernani	0-2
Martutene-Pasaia	4-3

Hurrengoak

Pasaia-UDA
Martutene-Hernani
Urola-Hondarribi
Mutriku-Ordizia
Touring-Ondarroa
Anaitasuna-Zestoa
Berio-Aloña Mendi
Idiazabal-Zarautz
Mondra-Trintxerpe

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Zumaiako	2-2

BIGARREN ERREGIONALA

Soraluze-UDA	3-1
Urki-Elgeta	1-3
Antzuola-Mondra	1-0

EMAKUMEZKOAK

(Atsedena)

OHOREZKO GAZTE MAILA (IGOERA)

Sportin Herrera-Mondra	3-1
Aloña-Martutene	4-3

GAZTEAK 1GO MAILA (IGOERA)

Arizmendi B UDA-Tolosa	1-4

OHOREZKO KADETEAK (IGOERA)

UDA-Tolosa	3-3
Bergara-Lengokoak	2-2

OHOREZKO KADETEAK (KOPA)

Arrasate-Hondarribia	3-3

NESKAK KADETE MAILA

Arizmendi Aretxabaleta-Mutriku	2-2

OHOREZKO INFANTILAK (IGOERA)

Lengokoak-UDA	1-1

OHOREZKO INFANTILAK (KOPA)

Aloña Mendi-Añorga	2-0

EUSKADIKO TXAPELKETA > EGIA LIDERRA IZAN ZEN ITURRIPEN

Liderraren atea zulatzea kosta egin zitzaien Ford Mugarriko jokalariei

Etxeko taldeak partidu txarra jokatu zuen zapatuan; erasoan huts asko egin zituzten

Arrasateko taldeak etxean galtzen duen bigarren partidua izan zen zapatukoa; aurretik, Romoren aurka galdu zuten

GOLEGILEA Nestor Calleja izan zen partiduko golegile nagusia: 11 gol egin zituen. JOSETXO ARANTZAL

FORD MUGARRI

22-32

EGIA SERVI CHAP

Ford Mugarri > Egaña, Valle, J. Eskibel, A. Eskibel, Gartzia (2), Olaberria, Masip, Zulueta (1), Gartzia, Arregi, Murillo, Ortiz de M., Bernal (2), Isasmendi, Otegi, Calleja (11), Alzelai (2), Otegi (3) eta Arreseigar (1).

Egia Servi Chap > Sistiaga, Martin (1), Santesteban (1), Artetxe (4), Amigoi (4), Etxeberria, Murua (8), Murua (1), Lopez, Arzak (5), Olano, Gorbea, Antonio (7) eta Kheireddi (1).

Bost minuturo golak > 2-2, 4-4, 4-9, 5-11, 9-13, 12-15. Atsedena. 14-17, 15-21-17-25,19-28, 20-31, 22-32

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Arrasateko taldeak ezin izan zuen ezer egin zapatuan Euskadiko txapelketako lider den Egiaren aurka. Beñardo Balerdiren taldeak gaizki jokatu zuen; etxekoek erasoan huts asko egin zituzten, batez ere sei metroko jaurtiketetan, eta defentsan ez ziren Egiaren erasoa gelditzeko gai izan.

LEHENENGO MINUTUAK ONDO

Partidu hasiera nahiko txukuna egin zuen Arrasateko taldeak. Lehenengo minutuetan jokoaren jabetza izan zuten; hala, 10. minutuan 4-4 berdinduta zeuden bi taldeak. Handik aurrera, baina, etxekoen jokoak gainbehera egin zuen, eta markagailua donostiarren alde jarri zen. Bost minututan 0-5eko partziala izan zuten arrasatearrek aurka.

Partidua maldan gora jartzen ari zela ikusirik, Balerdik hutsartea eskatu zuen. Jokalariek ondo erantzun zuten; hutsartearen ondoren, indarberrituta atera ziren, eta markagailuko aldea zertxobait txikitzea lortu zuten.

Banakako defentsa egin zioten Egia taldeko eskuin hegalari, eta etxeko taldea, erasoan, bi pibotekin jokatzen hasi zen. Hala, atsedenean hiru goleko aldea besterik ez zion atera liderrak Ford Mugarriri: 12-15.

EZIN ATEZAINA GAINDITU

Bigarren zatian, Egiak joko bizkorra egiten jarraitu zuen; baloia ondo mugitu zuten, eta ez zuten arazorik izan arrasatearren defentsa zulatzeko.

Etxekoek, ordea, arazo handiak izan zituzten atezaina gainditu eta baloia sareetan sartzeko. Kanpotik jaurtiketa gutxi egin zituzten, eta sei metroko jaurtiketetan ez ziren fin aritu. Arrasatearren kalterako, Egiako atezaina oso ondo aritu zen.

Azkenean, 22-32 galdu zuen Ford Mugarrik; etxean galtzen duen bigarren partidua izan zen zapatukoa. Datorren astean, Urolaren aurka neurtu beharko dituzte indarrak Beñardo Balerdiren mutilek.

emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA	
Ford Mugarri-Egia Servi Chap	22-32
EUSKADIKO GOREN MAILA	
Elorrio Eskubaloi-Verkol Aloña	18-21
LEHENENGO TERRITORIALA	
Tolosa-Arrasate eskubaloi	21-31
Urnietako-Bergara	19-30
GAZTE MUTILAK	
Aloña Mendi-Urola	23-25
JUBENILAK NESKAK, UDABERRI SARIA	
Leizaran-Verkol Aloña	8-16
KADETE MUTILAK	
Gatz Museoa- Bidasoa	25-24
Aloña Mendi-Donibane	36-30
KADETE NESKAK	
Cocinas Aiala-Arrasate	44-2
Zarautz A-Verkol Aloña	25-18

ESPAINIAKO TXAPELKETA > KADETE MAILAKO NESKAK

Ane Herrerok Espainiako eskubaloi txapelketa irabazi du

Kadete mailako Euskadiko selekzioak lehen aldiz irabazi du Espainiako txapelketa; Ane Herrero arrasatearrak Euskadirekin jokatu du

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Urtarrilaren 1etik 8ra jokatu zen Espainiako eskubaloi txapelketa, Vigon. Finala Euskadi eta Nafarroako selekzioek jokatu zuten, eta Euskadikoek menderatu zuten finala: 13- 30.

OSO GUSTURA

Espainiako txapelketa irabazi zuen selekzioko kide Ane Herrero arrasatearrak gustura amaitu zuen txapelketa." Nire partaidetzari dagokionez, zera azpimarratuko nuke: minutu asko jokatu ditudala eta golak ere sartu ditudala. Hortaz, oso pozik nago egin dudan lanarekin", azaldu du jokalari arrasatearrak.

Txapelketak bi fase izan zituen, eta biak ala biak ligaxka modura jokatu ziren. Lehen fasean, Euskadik Valentziako eta Aragoiko selekzioen aurka jokatu zuen. Fase hura lehen postuan amaitu zuen Euskadiko taldeak.

Bigarren fasean, Nafarroa, Galizia eta Euskadi lehiatu ziren, eta horien arteko bi indartsuenak lehiatu ziren finalean: Euskadi eta Nafarroa. "Ez genuen uste hainbesteko tartearekin irabaziko genuela; uste baino errazago irabazi genuen", dio Herrerok.

Hala, lehen aldia izan da kadete mailako Euskadiko selekzioak Espainiako eskubaloi txapelketa irabazten duena.

Ane Herrero. GOIENKARIA

DEFENTSA Emilio Gomez baloia atzetik atera guran. JOSETXO ARANTZABAL

ARETO FUTBOLA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Liderrari ondo eutsi arren, galdu egin du Eskoriatzak

Intxaurtxueta kiroldegian partidu polita jokatu zuten etxekoek liderraren aurka. Berdinketa eskura izan arren, 2-5 galdu zuen Eskoriatzak

A.G. > ESKORIATZA

Liderraren aurka lan txukuna egin arren, Eskoriatzak 2-5 galdu zuen zapatuan etxean. Abaltzisketako taldea gogor atera zen kantxara; seigarren minuturako, lehenengo gola egitea lortu zuten korner bidez. Minutu gutxira, bigarrena heldu zen. Aldageletara joan aurretik, Eskoriatzak markagailuko aldea murriztea lortu zuen; Aitor Romerok egin zuen gola.

ATEZAINA, JOKALARI LANETAN

Aldagelatik bueltan, liderrak hirugarren gola egin zion etxeko taldeari. Orduan, Eskoriatzak jokoa bizkortu egin zuen, eta Enrikek 2-3koa egin zuen.

Etxeko taldeak norgehiagoka jasoko zuela ematen zuenean, Ikusneten laugarrena heldu zen. Azken minutuetan, Eskoriatzak atezaina kendu eta jokalari bat gehiagorekin jokatu zuen, baina, gola egin beharrean, jaso egin zuten, Ikusnetek bosgarren eta azken gola egin zuen-eta.

Eskoriatzako entrenatzailea pozik zegoen taldearen jarrerarekin: "Liderrari ondo eutsi diogu", esan zigun amaieran.

PILOTA > BINAKAKO TXAPELKETA

Irujo eta Goñi III.a faboritoek erruz egin behar izan zuten lan partidua irabazteko

Olaizola I.ak eta Belokik partidu ona jokatu zuten, baina ez garaipena eskuratzeko adinakoa; beti aurretik joan arren, 22-17 galdu zuten atzo Bergaran

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Bergarako pilotalekura hurbildutakoen gozamenerako, Irujo eta Goñi III.a bikoteak binakako txapelketako bigarren jardunaldia irabazi zuen. Hala ere, bikote gorriak erruz egin behar izan zuen lan Olaizola I.a eta Beloki mendean hartzeko.

HASIERA KAXKARRA

Lehenengo sakea urdinek egin zuten; tantoa, ordea, gorritxoentzat izan zen. Irujok luze jo zuen, eta Belokik ezin izan zuen atzeko koadroetatik pilota atera. Gero, baina, gorriak izan ziren markagailuan aurretik jarri zirenak. Olaizola I.a eta Beloki 2-6 aurreratu ziren markagailuan. Lan polita egin zuten biek: Asier Olaizolak dejada politak egin zituen, eta Ruben Belokik ondo babestu zuen atzealdea.

Gorriek markagailua 2-6 kontra zutela, Irujok hiru dejada jarraian egin zituen, eta Belokik txapapera bidalitako pilotarekin 6-6 berdindu zuten markagailua. Bazirudien Irujok indarra hartu eta aurrera egingo zuela, baina ez zen hala izan; markagailua oso berdintsu egon zen.

IRUJO Uste baino huts gehiago egin zituen txapeldunak atzo. JOSETXO ARANTZABAL

Partidu erditik aurrera, gusturago aritu ziren gorriak. Hala, Goñi III.ak ondo babestu zuen Irujo txapeldunaren bizkarra. Iberoko pilotariak ez zuen egun ona izan atzokoan, baina bere kalitatea agerian geratu zen; dejada politak egin zituen, batez ere bi paretak.

Azkenean, 22-17 irabazi zuen bikote faboritoak. Atzokoarekin, orain arte binakako txapelketan jokatu diren bi partiduak irabazi dituzte Irujo eta Goñi III.ak

ERRUGBIA > GAZTE MAILAKO TALDEA

Arrasatearrek galdu egin zuten Gernikaren aurka

Bi jokalari gutxiagorekin amaitu zuen Arrasateko errugbi taldeak Gernikaren aurkako norgehiagoka

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Euskadiko gazte mailako errugbi txapelketari zegokion partidua jokatu zuten zapatuan Garagartzan Arrasatek eta Gernikak.

Arrasateko taldeak 14 jokalari bakarrik ditu. Zapatuko lehian, etxeko bi jokalarik min hartu zuten, eta hori antzeman egin zen partiduko azken emaitzan: 7- 43.

ATSEDENEAN, 7-12

Mikel Kerejeta eta Aimar Ormazabalek zuzentzen duten taldeak partiduko puntu guztiak lehen zatian lortu zituen. Atsedenera, 7-12 iritsi ziren aurretik bizkaitarrak.

Norgehiagoka aldatu egin zen bigarren zatian. Atsedenaren aurretik, Arrasateko bi jokalarik min hartu zuten. Hortaz, etxeko taldea 11 jokalarirekin geratu zen. Horren ondorioz, arrasatearrek zulo asko utzi zituzten zelaian. Gernikako taldeak zulo horiek aprobetxatu zituen entseguak egiteko eta partidua irabazteko.

Arrasateko errugbi taldeak, denboraldi honetan, partidu bakarra irabazi du.

ALBOKO SAKEA Errugbian, argazkian ikusten den moduan egiten dira alboko sakeak. JOSETXO ARANTZABAL

LEINTZ BAILARA

Gaztetxoek asko eskertzen dute gurasoek harmailetatik ematen dituzten animuak

1. JARDUNALDIA Zapatu goizean elkartu ziren Leintz bailarako neskak Iturripeko kiroldegian lehenengo jardunaldia hasteko

ARETO FUTBOLA Oraingo honetan, areto futboleko partiduak jokatu zituzten; kantxa guztian aritu ziren, luzetara, nor baino nor gehiago

IKUSLE GUTXI Ohikoa baino ikusle gutxiago bildu zen zapatuan Iturripe kiroldegian nesken arteko areto futbol partiduak ikustera

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Gabonetako oporraldiak bukatuta, zapatuan, eskola kiroleko jardunaldiak hasi ziren ibarreko ikastetxeetan. Leintz bailarako ikastetxeek hiru kirol jarduera antolatu zituzten: Almenen, minisaskibaloian eta zortziko futbolean aritu ziren, eta Iturripen, areto futbolean. Gu Arrasateko kiroldegira joan ginen, Iturripera. Han, Kurtzebarri, Gazteluondo eta San Viatorreko neskak harrapatu genituen, nor baino nor gehiago areto futboleko partiduak jokatzen. Zapatukoa lehenengo jardunaldia izan zuten.

GURASOEN ANIMUAK

Ohikoa baino ikusle gutxiago bildu zen zapatuan Iturripen nesken arteko areto futboleko partiduak ikustera.

Harmailetan guraso gutxi ikusi genuen; ondorioz, jokalariek jaso zituzten animu eta txaloak ere gutxi izan ziren. Eta horixe galdetu genien neskei: ea gustuko duten gurasoak partiduak ikustera hurbiltzea. Gehienek baietz esan ziguten: "Asko animatzen dute eta zerbait ondo egiten dugun bakoitzean animatu egiten gaituzte".

Gaztetxoek gustuko dituzte gurasoen txaloak, baina baita aholkuak ere: "Zerbait gaizki egiten badugu ez dira haserretzen; animatu egiten gaituzte eta hurrengo batean nola egin behar dugun esaten digute", adierazi ziguten partidu amaieran Gazteluondo taldeko neskek.

A.E.

Kurtzebarri. Ana, Elene, Lia, Haizea, Ekaitz, Garazi, Iratxe, June eta Lore. Argazkian Mireya falta da.

A.E.

Gazteluondo 5. Maia, Ixiar, Eider, Lorea, Naiara eta Itsaso. Argazkian Wendy, Mireia, Maider eta Leire falta dira.

A.E.

San Viator 5. Maria, Lide, Amaia, Ane Z., Nerea, Garazi, Ane K., Ikerne, Libe eta Itsaso dira San Viator 5 taldeko kideak.

A.E.

San Viator 6. Amaia, Ainhoa, Julene, Kimei, Jone D., Maider, Jone B., Leire, June, Alba, Malen, Izaskun, Irati eta Eider.

GUSTUKO DUTE GURASOAK HARMAILETAN EGOTEA?

Maia
Gazteluondo 5

"Gurasoak askotan etortzen dira gure partiduak ikustera. Ni ez naiz urduri jartzen gurasoak harmailetan daudenean; are gehiago, animu asko ematen digute eta hori oso garrantzitsua da".

Eider
Gazteluondo 5

"Gaur ez dira etorri, baina normalean etortzen dira gu jokoan ikustera. Asko animatzen gaituzte eta horrek indarra ematen du. Gainera, galdu ezkero ere ez digute ezer esaten etxean".

Naiara
Gazteluondo 5

"Nik nahiago dut gurasoak harmailetan egotea, hala animu gehiago jasotzen dugu-eta. Askotan etortzen dira gurekin, batez ere autoz eraman behar gaituztenean. Asko txalotzen gaituzte".

Ixiar
Gazteluondo 5

"Gurasoak gaur ez dira etorri, baina normalean etortzen dira partiduak ikustera. Asko animatzen gaituzte, eta ondo jokatzen dugunean txalo egiten digute. Etxean ere ondo egin dugula esaten digute".

Itsaso
Gazteluondo 5

"Asko gustatzen zait gurasoak harmailetan begira egotea. Asko animatzen gaituzte, eta nola jokatu behar dugun ere esaten digute. Zerbait gaizki egiten badugu, ez dira haserretzen".

Lorea
Gazteluondo 5

"Animatzera etortzen dira, eta hori ona da guretsko. Zerbait gaizki egiten badugu, ez digute haserrerik egiten. Animatu egiten gaituzte, eta hurrengo batean nola egin behar dugun esan ere".



Laster GIDA 2007 zure etxean!

Gida osatuena
erabilgarriena eta berriena.

Zure herriko denda eta enpresen telefonoen gida.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

> OLATZ PAGALDAI Aktore eskoriatzarrak ipuinak kontatuko ditu asteon **> 29**

> UNAI AZKARATE Margo erakusketa dauka bergararrak Elgetako Espaloia antzokian **> 29**

> NORA ASKARGORTA Donostian telebistako aurkezle lanetan dihardu kazetari bergararrak, eta telebista saioez, danborradaz... berba egin digu **> 29**

Otzandu ezineko panteren zuzeneko basatia, garaile

Haien freskotasuna eta tinkotasunarengatik aukeratu dituzte

Jendez bete zen Espaloia antzokia egubakoitzeko finalean

JON BEREZIBAR > ELGETA

"Freskoa, gaztetasunaren indarra, sendotasuna, elkar ulertzea... argi dute nolakoa gura duten soinua, eta hori erakutsi dute taulan". Horiek dira epaimahaiaren laudoak, eta horiengatik dira Bergarako "pantera beltzak" (Aby-Kem berbaren egiptoerako itzulpena) Danbaka lehiaketako irabazleak.

Egubakoitzean izan zen finala Elgetako Espaloian, eta ezin talde ezberdinagoak egon ziren lehian. Aby-Kemekoek kontzertu sutsu eta zuzena egin zuten, inortxo ere epel uzteke; Belcebluesekoek berriz ere akatsik gabeko emanaldia egin zuten, eta Malenkoniak beste behin frogatu zuen presentzia kontuetan asko ikasi duela.

Txapeldunek jo zuten lehenengo. Zerogarren segundotik guztia eman eta zartada bat modukoa izan zen kontzertu bizi eta indartsua egin zuten. Belcebluesekoen planteamendua guztiz ezberdina izan zen baina, era berean, guztiz gozagarria. Bluesean maisu eta artista direla argi utzi zuten eta, sorpresa modura, metal laukotea atera zuten oholtzara. Amaierako rock-and-rollak Espaloia dantzan jarri zuen. Merezitako txalo zaparrada beroa jaso zuten bergararrek. Eta amaitzeko, Malenkonia, txukun jo arren, haien onenera iritsi ez zirela eman zutenak. Aukera politak zituen taldea izanik, akaso ez zen haien gaua izan.

MENDERAGAITZ Aby-Kem hasieratik jaun eta jabe izan zen zuzeneko bortitz eta ikusgarriarekin. JOSETXO ARANTZABAL

"ERABAKI ZAILA"

Aukeraketa "benetan zaila" izan dela azaldu du epaimahaiak, Espaloiko Iban Arantzabalek, Goienako Iker Barandiaran kazetariak, Jul Bolinaga R.I.P.eko kideak, Iñaki Bengoa Shot estudioko arduradun eta musikariak eta Itziar Iturbe Cool Panic taldekoak osatua. "Estilo bakoitza punta batekoa izateak lehiaketari berezitasuna eman badio ere, zailtasuna izan da hori epaimahaiarentzat", azaltzen dute epaimahaikideek, eta "hiru taldeek norbere estiloa menderatzen dutela" gaineratu zuten.

Irabazleek orain diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak etxean kaleratuko dute. Sari nagusiaz gain, Jim TNT bakarlariak irabazi du bakarlari onenaren saria, eta Oñatiko Drakes taldea izan da ikusleen faboritoa.

Jaialdia borobiltzeko, Kerobia talde nafarrak jo zuen amaieran. Kontzertu kaskartxoa izan zen haiena talde horrek Elgetan egindakoa, kontzertu ganorazkoagoak egin ohi ditu eta.

SARI BEREZIAK

Jim TNT | Arrasate | Bakarlari onena

Gitarrarekin eta armonikarekin jendearekin konektatu izana baloratu du epaimahaiak. "Emozioa jarri dio kantuari, eta hori eskertu egin dute entzuleek", azaltzen dute epaimahaikideek. Kantuak eta melodiak ikusi direla diote. Zera gehitzen du epaimahaiak: "Ezin da ukatu jotzen dituen kantuak bizi dituela". Azkena Rock jaialdirako sarrera eta hotelean gauak dira harendako sariak.

Drakes | Oñati | Ikusleen saria

Espaloiko kutxetan kontzertuetan botoa utziz, e-mailez eta SMS bitartez, Drakes Oñatiko taldea izan da ikusleen gogokoena. Sari polita eramango dute oñatiar hauek ere etxera: musika materialean Carrion dendan gastatzeko 1.400 euro izango dituzte Drakesekoek. Taldeak boto ugari jaso ditu, bai kutxan zein Danbaka.com webgunean, eta baita SMS sistemaren bitartez ere.

ABY-KEM | Bergara

Zuzenekoa da haien elementu naturala, eta oholtzan ikuskizuna ematen badakite. Indarra, elkar ulertzea, disfrutatzen jakitea... Berriz ere eszenatokian daukaten giroa eta gozatzeko gogoa Espaloiko txoko guztietara zabaltzea lortu zuten. Metalzale ez direnek taldearen ahalegina eta gogoak baloratzen jakin zuten egubakoitzean.

Kontzertuari gogor eta egurra emanez ekin zioten, eta amaierara arte ez ziren kikildu pantera beltzak, inondik inora. Euren gaua izan zen, zalantzarik gabe, eta zuzeneko bortitz horrekin finalean zergatik zeuden garbi utzi zuten Aby-Kemekoek. Saria ere, beraz, ondo merezitakoa da haiena. Ondo zaindutako eta bikain aukeratutako errepertorioa aurkeztu zuten, kontzertuak garapen bikaina izan zuen, eta ixteko aukeratutako bi abestiak, *Eguzkia* eta *Azken Guda,* erabakigarriak izan ziren saio ezin hobea borobiltzeko.

Egur nahikoa eman zuten gainontzeko kontzertuetan ikusleak bero edukitzeko, eta haiek ere aparteko erantzuna eman zieten musikariei. Abesti baten ere ez zituzten lehen ilaretakoek eskua jasota atzamar nagia, erakusle eta erpurua jaitsi.

Ondo merezitako garaipena izan da haiena, eta orain, disko baten hori paketatzea izango da erronka.

BELCEBLUES | Bergara

Bigarren jo zutenek ere ez zuten makal jardun, eta ikusleek emandako txaloengatik eta jarri zuten giroarengatik, kontzerturik beroenetakoa izan zen. Zer esanik ez musikarietaz, profesional askok nahiko lituzke-eta Belcebluesekoen atzamarrak. Akatsik ez jotzerakoan, maila itzela dauka Bergarako hirukoteak.

Kontzertua bikain hasi eta sorpresa politarekin itxi zuten gonbidatutako haize laukotearekin. Haiekin jotako abestiak ikaragarriak izan ziren ,eta jendeak ez zuen beste erremediorik izan dantzan amaitzea baino. Rock-and-roll batekin bukatu zuten, eta txalo zaparrada jaso zuten Belcebluesekoek. Ikusleek "beste bat" eskatuz utzi zuen oholtza hirukoak. Kontzertu bikain horren ostean, ziur gauzak asko zaildu zitzaizkiola epaimahaiari.

Teknikari dagokionez, zalantzarik ez talderik onena izan zela, baina akaso nortasun ez oso definitua izan zen taldearen huts txikia. Hala ere, blues zaleek traba gutxi ipiniko dizkiote hirukoteari. Aurrekoan paregabe ibili baziren, egubakoitzeko finalean are hobeak izan ziren bergararrak, eta benetan kontzertu gozagarria izan zen haiena: zaindua, gustuarekin jotakoa eta maila itzelekoa. Ziur askoren faboritoa zela, bat baino gehiago zur eta lur utzi zuten eta. Danbakako ezusteko atseginetako bat izan da Belceblues.

MALENKONIA | Oñati

Askoren faboritoa zenak egubakoitzean ez zituen itxaropen guztiak ase. Jauzi handia egin dute oñatiarrek aurreko ediziotik, eta taldeak soinu helduagoa eta osatuagoa aurkeztu du aurtengo Danbakan. Egubakoitzean, baina, ez ziren aurreko emanaldiko mailara iritsi eta, aurreko aldian sobera konbentzitu bazuten ere, finalean ez ziren hain fin ibili. Hein handi baten, ahotsetan egin zuen huts taldeak, eta argi geratu zen lanik handiena horretan daukatela Malenkoniakoek. Taldea, bestela, forma onean agertu zen, eta abesti sorta polita daukate dagoeneko txantxikuek, instrumentalki aberatsak eta erakargarritasun nahikoarekin. Kontuan hartzekoa da taldeak estiloan egiten duen ekarpena eta, egubakoitzean gauzak zintzilik geratu baziren ere, zalantzarik ez dago, nahi izanez gero, taldeak benetan bide polita daukala egiteko etorkizunean, ematen duenez ez dute-eta norabide okerra aukeratu.

Askok egiten zuten Malenkoniaren alde: musika motarengatik, taldearen jarrerarengatik eta abestietan erakutsitako dotorezia eta gustu onarengatik. Talde honek aukera askoz ere gehiago ditu, nahiz eta finalean estropozu egin. Pop talde sendo bihurtzeko traza guztia daukate oñatiarrek, dagoeneko gai direla erakutsi dutelako.

TALDE GONBIDATUA

KEROBIA

Talde gonbidatuak epaimahaiaren erabakia jakiteko itxaronaldia oraindik eta luzeago egin zuen.

Hasieratik hasi ziren oker nafarrak. Jarrera ez oso ona eta, hasieran, soinuan gorabehera dezente izan zituzten.

Talde ona da Kerobia, abesti onak dituzte eta ondo jotzen dute. Egubakoitzean, baina, kaskar ibili ziren, ganora barik jotzen eta, sarri, gogo txarrez zebiltzala ematen zuen, batez ere abeslaria.

Rose Escargot diskoa aurkeztera etorri ziren, debut lanetik aurrera pauso polit eta interesgarria dena. Hala, beste baten defendatu beharko dute disko berria hobeto, egubakoitzekoa atentzioa deitzekoa izan zen eta. Hala ere, ikusleek txaloekin berotu eta kontzertuan jarrera ona izan zuten. Ibarrean aurretik ere izan dira jotzen, eta maila ona erakutsi izan dute beti, erreferenteetako bat bihurtzen dabiltza-eta euskal popean. Dotoreak dira eta ondo jotzen dute, baina Elgetan euren ohiko mailatik oso urruti geratu ziren, eta tamalgarria izan zen hori.

Ikuskizuna ikusita, askok galdetzen zuten ea guztiz beharrezkoa den finalean talde gonbidatua, gehienak luzeegi egiten zela kexatzen ziren-eta. Kerobia taldekoek, behintzat, ez zuten inola ere lagundu itxaronaldi astuna eramangarriago egiten. Hurrengo baten izan beharko da.

Debagoieneko **WEBGUNEAK**

www.

AHOLKULARITZAK
ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRAINDEGIAK
ITXASEDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
WINTERTHUR
www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA
AUTOS ARETXA S.L
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBEGOLA –BMW-
www.autos-ribegola.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

AUTO-KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.lilura.com
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROAK
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiketak.com

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

HARATEGIAK
LANDALUZE
www.landaluze.com

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

ILE APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokorosti-com
UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-alde.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

LANDETXEAK
UXARTE LANDETXEA.
www.goiena.net/blogak/uxarte

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com

SKATE&SNOW
LAINO
www.laino.info

SUKALDEKO ALTZARIAK
BASTIDA SUKALDEAK
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIKA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
GELATZU
www.gelatzu.com

URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEA
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Usoa Agirre/Maider Arregi

Pantera beltzak garaile, zorionak!

Urduritasun eta emozioz betetako gaua izan zen finalekoa. Urduritasuna, hasi baino lehen, dena gaizki irtengo ote zen beldurrez. **Teknologiak** ez zuen asko lagundu dena gidoian idatzitako moduan irten zedin, baina musika lehiaketa izanik, musika izan zen protagonista. Igarri zitzaien hiru taldeei Gabonetan entseatzen sartutako orduak; dena neurtuta izan zuten eta bikain aritu ziren. Kontzertuetan izan genituen gure emozio momentuak, eta, noski, baita amaierako sari banaketan ere.

Baina, lehiaketa izanik, norbaitek irabazi behar eta **Aby-Kem**ekoek irabazi zuten. Hirurek merezi zuten sari nagusia, baina aitortu behar dugu gure faboritoak zirela **Alvarez** eta konpainia. Indartsu hasi zuten gaua; kalitatea eta freskotasuna dute eta kontzertua borobiltzea lortu zuten. Kontzertu guztietan moduan hor izan zituzten ikusleen artean, lehen ilaran, beraien lagun eta jarraitzaileak, burua astintzen.

Belceblusesekoak sorpresa eta guzti etorri ziren. Finalerako gonbidatu moduan ekarri zituzten **Bergarako banda**ko lau kide. Hasi al dira, bada, bandaren 175. urteurreneko ospakizunak? Taula gainean disfrutatu zuten bergararrek, baina ikusleen artean ere dantza ederrak egin zituzten batek baino gehiagok.

Norgehiagoka gogorra izan zen eta dena eman zuten **Malenkonia**koek ere. Baina, lehiaketa norbaitek irabazi behar zuen eta Malenkoniakoek badute oraindik denbora eta kalitatea publikoa irabazteko.

Kerobiak gaua luzatu zuela-eta kexu ziren batzuk. Bai, gaua luzatu zen, baina epaimahaiari ere bere denbora laga behar zaio erabakitzeko. Beste talderik ez balitz egon gehiago aspertuko ginateke, ez? Taldearekin asmatu zen edo ez, hori beste eztabaida bat litzateke.

Ea hurrengo edizioan zer sorpresa izaten dugun!

SOINUA Malenkoniak soinu txukuna izan zuen.

GOZATZEN Disfrutatzeko modukoa izan zen Belcebluesekoena.

BASATI Guztia eman zuten Aby-Kemeko basapiztiek.

BORTITZ Indartsu, Rober, Aby-Kemeko gitarra jolea.



BIDEA EGITEKO Etorkizuna polita daukate aurrean Malenkoniakoek.

KONPLIZITATEA Ikusleekin ondo ulertu ziren Belcebluesekoak.

bakarlariaren saria

Jim TNT > Arrasate

"Bakarlari batek entzuleari zerbait berezia transmititzea seinale ona da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Asko izan dira Danbakaren bigarren ediziora aurkeztutako bakarlariak; horietatik bost aukeratu zituzten lehiarako eta, kontzertuen ostean, Jim TNT abeslari arrasatearrari eman dio epaimahaiak bakarlari onenaren saria.

Espero zenuen bakarlari onenaren saria jasotzea?

Ez nuen espero, ez; are gutxiago, gaztelaniaz abestuta. Pentsatu nuen hori, beharbada, kalterako izan zitekeela, baina ez da hala gertatu, eta pozik nago saria eskuratu dudalako.

Epaimahaiak entzulearekin lortutako konexioa eta jendearengan sortutako emozioa azpimarratu ditu saria emateko.

Ondo iruditzen zait. Azken finean, bakarlariak entzuleari zerbait berezia transmititzea seinale ona da, eta hori lortu dut, jendearengana iristea. Entzuleek, behintzat, ondo erantzun zuten, eta horrekin ni neu ere gustura geratu nintzen.

GOIENKARIA

Danbakan, bakarka zein Los Cretinos taldearekin, nola joan da zuretzat lehiaketa?

Egindako bi kontzertuekin gustura geratu nintzen. Lehiaketa honetatik gustuko dut kontzertu berean talde eta estilo aniztasuna egotea, hori gutxitan ikusten baita. Normalean, musika mota bera egiten dugun taldeak elkartzen gara kontzertuetan. Danbakak, era berean, balio izan dit talde berriak ezagutzeko. Esaterako, Mahaster River eta Belceblues gustatu zaizkit, baita Raul Lasa ere, eta gehiago ere ezagutu ditut. Irabazleak ere onak direla uste dut, baina nik musika estilo hori ez dut gustuko. Oro har, Danbakan oraingoan maila ona ikusi dut; harrituta geratu naiz, benetan.

Bigarren aldiz aurkeztu zara aurten. Hurrengoan ere aurkeztuko zara?

Oraingoa amaitu berri da eta berriz aurkeztuko naizen ala ez esateko goizegi da; hurrengoa gerturatu ahala erabakiko dut.

Egubakoitzekoa xanpainez ospatu eta gero, lo aurpegiarekin eta ahots urratuekin agertu ziren Aby-Kemekoak zapatuko hitzordura. Heldu eta ea urik bazegoen galdetu zuten berehala. Behin eserita, garaipenarekin pozik eta buruan mila proiekturekin, hizketaldi dibertigarri eta lasaia izan genuen aurtengo Danbaka musika lehiaketako garaileekin.

Aby-Kem > Danbakako irabazleak

"Aby-Kem benetan zer den jakin nahi duenak diskoan izango du erantzuna"

JON BEREZIBAR > BERGARA

Aby-Kem Mikel Ilarduia eta Rober Ugarte gitarra joleek, Mikel Alvarez abeslariak, Iñigo Ibartzabal bateria joleak eta Aimar Lasa baxu joleak osatzen dute.

Aimar Lasa, Mikel Alvarez, Mikel Ilarduia, Iñigo Ibartzabal eta Rober Ugarte lokalean, saria ospatzen. GOIENKARIA

Metala gustatu edo ez, zuen zuzenekoa behintzat ikaragarria izan da.

Mikel Alvarez: Horretan saiatzen gara; garrantzi handia du horrek guretako. Gu finaleko kontzertuan jolasean ibili ginen, umeak bezala disfrutatzen. Lokalean ere horrela edo txarrago ibiltzen gara, musika bizitzen. Asko gustatzen zaigu tontoarena egitea, gozatzea; flipatu batzuk gara eszenatokira igotzen garenean (barre).

Mikel Ilarduia: Hori egin behar da, ez ala? (barre) Eszenatoki gainean, paperean sartu beharra dago, ikusleekin konexioa aurkitu behar da. Pixka bat agresiboak gara gu zentzu horretan.

M. A.: Ni, adibidez, mundu baten sartzen naiz, mundu guztia gorrotatzen, agresibitate guztia ateratzeko (barreak). Kontzertu baten, jo baino ordu laurden lehenago ez niregana etorri, jasanezin jartzen naiz eta.

Jende asko zegoen Espaloian, ikaratzen zaituzte horrek?

M. I: Beharbada, jende asko dagoenean, errazago jotzen dugu. Guk ikuskizun dezente ematen dugu, eta ikuskizun hori egitea zailagoa da hogei lagunen aurrean berrehunen aurrean baino, errazago sartzen gara paperean. Lehertu egiten gara.

Epaimahaiak, hain zuzen ere, zuen zuzeneko indartsu eta sinisgarria baloratu du.

M. A.: Garrantzitsuena da hori guretako. Gure nahia da kontzertuetan konfiantza hartu eta transmititzen jakitea. Nik, behintzat, gero eta gehiago bizi dut hori. Aurrekoan, taberna baten jo genuen, askoz ere planteamendu xumeagoarekin, baina berdin-berdin bizi izan genuen. Ni, behintzat, ia negar egitera heltzen naiz, guztiz emozionatuta. Aby-Kemen, mundu horretan sartzen gara.

M. I.: Guretako sekulakoa izan da jendeak gure alde apustu egin izana. Sinistu egiten dugu jotzen duguna.

M. A.: Gure filosofia da, guk sinisten badugu, ikusleek ere sinisten dutela.

Iñigo: Nabaritu egiten da hori berehala. Ikusleak badaki norberak bizi duenean.

M. I.: Zaragozan jo genuen urte amaieran, eta han, jendea hasieratik etorri zen lehen ilarara, nahiz eta gu ezezagun batzuk izan. Demo batzuk eroan genituen, eta sekulako erantzuna izan zuten.

Hurrengo erronka diskoa izango da. Zelan ikusten duzue ?

M. A.: Onenak ipiniko ditugu diskoan, eta pare bat berri. Maketa eta demoa dauzkagu, baina gaur egun daukagun soinuarekin pixka bat atzeratuta dago.

M. I. : Disko berrian, benetan Aby-Kem dena aterako da. Aby-Kem zer den jakin nahi duenak disko horretan izango du erantzuna.

M. A.: Diskoan, saiatuko gara zuzenak izaten, diskoan eta zuzenean ondo entzungo dena egiten. Niri ez zait batere gustatzen talde bat diskoan izugarria izatea eta zuzenean huts egitea. Musikari batek zuzenean frogatzen du dena. Diskoan, zuzeneko energia hori transmititu nahi dugu.

FINALA

"Jolasean ibili ginen, gozatzen. Tontoarena egitea gustatzen zaigu eta flipatu egiten dugu ikuskizuna emanez"

ZUZENEKOAK

"Gure filosofia da, guk sinesten badugu, ikusleek ere sinesten dutela"

DISKOA

"Diskoan gure zuzenekoen energia hori transmititu nahi dugu, abestirik onenekin"

M. I.: Harrituta gaude ere Hotsakek gurea moduko disko bat aterako duelako. Flipatzen egongo dira (barre).

M. A.: Ze!, eta ondo ateratzen bazaie kontua?

Harrera ona izango duela uste duzue?

M. A.: Euskal Herrian, bi arlo daude metalean: metala eta euskal metala. Baditugu ingelesez abesten duten taldeak eta, amerikarrak direla esanez gero sinistu egingo luke batek; maila ikaragarria daukate. Talde horiek, baina, ez daude euskal metalean, eta kanpora proiekzio handia daukate.

Gero, euskal musika entzuten duen jendeak metala ere entzuten du, beste estiloen artean, Kerobiatik hasita Biokeraino. Benetan metala entzuten duen jendeari gustatu nahi izanez gero, kanpoko taldeekin lehiatzen gara.

Zer iruditu zaizue finala?

M. A.: Oso zaila da baloratzea, oso talde ezberdinak geundelako. Guk, nire ustez, irabazi dugu dena baten daukagulako, zuzenean ikusi delako. Belcebluesek oso kontzertu onak egin zuen, metalekin eta guzti.

M. I.: Akaso kontuan izan dute ere taldeak jardunean dauden, zelan mugitzen diren, eszenaratzea, ikuskizuna, jarrera…

M. A.: Malenkoniak irabazi ko zuela uste nuen nik, baina finalean ez zuten euren onena eman; aurrekoan hobeto ibili ziren.

Talderen batek aurrera egin beharko zukeela uste duzue?

M. A.: Ozen ere finalean egon zitekeela iruditzen zait. Mahaster Riverrek ere sekulako maila dauka. Scam ere asko gustatu zitzaidan; hurrengo Danbakan aurkezten badira, akaso sorpresa emango dute.

Rober: Jim TNT bakarlari onena izan da, zalantzarik gabe, eta asko gozatu genuen harekin.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoan, 4. solairua. Bi logela, egongela, bainugela eta ganbara. Eguzkitsua. Berritua. 639 58 13 83.

Antzuola. Eguzki auzoan. Hiru logela, bi komun, igogailua. Eguzkitsua. 620 31 64 93.

Arrasate. Erguin kalean. Egongela, sukaldea, bi logela, bainua, berogailua. Oso eguzkitsua. 649 70 33 83.

Arrasate. Etxea salgai Munar auzoan. 665 70 69 25.

Arrasate. Erdigunean. Hiru logela ditu eta jantzita dago; igogailua ere badu. 943 79 60 88.

Arrasate. Zigorrolan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Jantzita. 619 45 42 87.

Bergara. Baserria salgai Angiozarren. Prezio interesgarria. Deitu 626 35 60 89 telefonora.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Solairu altua, igogailuarekin. Deitu 620 18 59 06 telefonora.

Bergara. San Pedro kalean. 110 metro koadro gehi ganbara. Guztiz berritua dago, estreinatzeko. 943 76 72 01.

Bergara. Simon Arrietan, 80 m^2. Berritua. 2 logela, komuna, egongela, sukaldea, jantokia eta balkoi ederra. Banakako berogailua, gas naturala eta igogailua. Garajea aukeran. 45 milioi. Deitu 664 73 49 60 telefonora.

Elgetan. Etxebizitza salgai. 71 metro koadro. Sukaldea, komuna eta 4 logela. 13 metro koadroko trastelekua. 943 76 81 02 edo 943 76 80 29.

Gasteiz. Bi logela, egongela, sukaldea eta komun bat. Igogailua eta ganbara. Hiru urte direla guztiz berritua. Solairu altua eta argitsua. Berogailu indibiduala. Jantzita. Hiri erdian (Poliklinika eta Gasteiz hiribidea bitartean). 252.500 euro. 629 75 54 22.

Gasteiz. Erdialdean. Bi solairu. Lehenengo solairuan: 3 gela, bainugela, sukalde-jangela eta sarrera. Beheko solairuan: txoko handia sutondoarekin, bainugela, gela eta soto txikia. Berritua eta berogailuarekin. Beheko solairuak kaletik sarrera zuzena du. 125 m^2. 670 35 61 37.

Osintxu. 85 m^2. Berogailua, igogailua eta trastelekua ditu. Egoera ona. Prezio interesgarria. 656 74 78 80.

Oñati. Etxea salgai, leku eta egoera oso onean. Egongela, hiru gela, bi bainu, ganbara. Garajea aukeran. 635 70 83 11.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 m^2 garaje itxia aukeran. 656 74 80 47.

Oñati. San Lorentzon apartamentua eta garajea salgai. Bi logela, saloi-sukaldea, komuna eta terraza handia. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Uberan. Baserria eta lursaila. 943 78 90 15 edo 943 76 82 12.

103. ERRENTAN EMAN

Vera (Almeria). Naturista-gune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ingrid. Deitu 645 49 91 05 zenbakira.

Debagoiena. Bikote batek etxe bat errentan hartuko luke. Deitu 677 64 84 82 telefonora.

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Logela bat daukagu alokatzeko. 616 45 00 20.

OÑATI

Ile apaintzaile esperientziaduna behar da ile apaindegirako. Lanegunak: Astelehenetik egubakoitzera. ZAPATUETAN JAI. 665 73 95 65

ANTZUOLA

Untxi granjarako langile espezializatua behar da. Ordezkapen kontratua. Autoa beharrezkoa. 608 40 42 61

Arrasate. Langilea naiz eta etxebizitza bat osatuko nuke beste batzuekin edo logela bat alokatuko nuke. 615 75 11 47.

Arrasate. Lanean dabiltzan bi mutilek lagun bat behar dute etxebizitza osatzeko. 615 76 40 71 edo 627 48 71 70.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Altamiran Garajea alokagai prezio onean. 678 53 12 25.

Arrasate. Garajea salgai Uribarri etorbidean. 625 47 61 62.

Arrasate. Garajea salgai Usatxe plazan (14 m2). Deitu 665 71 40 34 telefonora.

ARRASATE

Zerbitzaria behar da taberna baten lan egiteko. Euskaraz egitea baloratuko da. Aste bukaeratan jai. 617 60 84 45 680 67 22 93

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garajea Kalegoin. Deitu 666 44 10 09 telefonora.

Antzuola. Sagastin garajea errentan ematen da. Deitu 650 55 44 98 telefonora.

Bergara. Auto txikiendako garajea errentan ematen dut, Burdiñaten. 943 76 13 33.

Oñatin. Bidebarrieta kalean garajea errentan ematen da. Deitu 695 75 85 26 telefonora.

Garaje bat alokatu edo saldu egiten da. Erdialdean. 665 73 40 09 edo 943 77 18 49.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. San Lorentzo auzoan dagoen lokala salgai. Deitu 605 77 15 13 edo 605 71 84 94 telefonoetara.

BERGARA

Sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira jatetxe baterako. 943 76 55 00

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Ingeles eskolak. First titulua beharrezkoa. Felix. 943 03 73 39.

Oñati. Emakume bat behar da arratsaldeetan ume bat zaintzeko. 658 73 40 21.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakume arduratsua goizez edozein lan egiteko gertu. 943 03 64 36 edo 637 37 41 80.

Arrasate. 23 urteko neska euskalduna prest umeak zaintzeko. 699 11 43 23.

Bergara. 40 urteko emakume arduratsu batek zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke 14:00etatik 21:00etara, eta gaixoak zainduko lituzke ospitalean gauez. 649 63 23 24.

Bergara. Bide eta ubide ingeniari boliviar batek edozein motatako lanak egingo lituzke, baita ingelesez eskolak eman ere. 696 38 10 07.

OÑATI

Estetizista eta ile apaintzailea behar da ile apaindegi baten lan egiteko. 607 81 52 74

Bergara. Edozein lanetarako gertu dago neska bat. Agiriak ditu, eta eta esperientzia. Arrasaten ere egingo luke lan. 650 62 12 94.

Debagoiena. Mutila. Edozein lan egiteko gertu. 677 69 14 15.

Debagoiena. Neska edozein lan egiteko gertu . 659 35 09 30.

Debagoiena. Emakume arduratsua eta esperientziaduna gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 610 95 81 16.

Debagoiena. Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldez. Luisa. 628 82 96 56.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Etxe barruan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. 943 53 21 63 edo 600 69 92 03.

Debagoiena. Gazte batek zerbitzari lan egingo luke. Eskarmentuarekin. 669 62 94 05.

Debagoiena. Gazte marmolariak era guztietako lanak egiten ditu marmolean eta granitoan. Eskarmentu handiarekin. 943 53 21 63.

Jostunak konponketa-lanak egingo lituzke: arropa-barrenak, kremailerak,... 699 34 86 88.

Mutil batek ingeles eta frantseseko eskolak ematen ditu, etxez etxe. 699 34 86 88.

Nekazaritza teknikaria naiz. Zuhaitz inausketa, lorategi, baserri edota edozein lekutako garbiketa eta mantentze lanak. 699 34 71 99.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Oñati. Batxilergoko irakaslea. Matematika, fisika eta kimikako klaseak emateko. Egunean bi ordu. Astelehenetik eguenera. Ondo ordaintzen da. Deitu 943 78 13 44 telefonora.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen ZX 1.9 TD . Bost ate, aire girotua. 12 urte. 1.600 euro. Deitu 19:30etik 22:00etara. 943 78 36 32.

Karabana. Knaus 550. 2006koa. 6 plaza. Aire girotua eta estrak. 652 77 73 27.

Multivan Allstar furgoneta. 1997koa, egoera oso onean. Prezio interesgarria. 679 24 80 35.

Renault 19 autoa. 110.000 kilometro ditu eta 1.200 euro eskatzen ditut. 636 57 65 66.

Renault Trafic furgoneta salgai. Generation modeloa. 685 73 06 94 edo 652 73 46 11.

Scooter Suzuki Katana R 50 cc salgai. 1999koa. Gutxi erabilia. Bi kasko. 943 76 36 63.

Scooter Suzuki motorra. 49 cc. 12.000 km, 420 euro. 626 28 68 13.

Volkswagen Passat 1.8 autoa salgai. Gasolina. Zazpi urte. 100.000 kilometro. Neguko gurpil berriak ditu. 685 75 61 34.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Hiru arratoi-txakur ditut opari egiteko. 945 44 51 46.

Txakurra opari egiten dut. Urtebete dauka. Arra. 943 76 64 65.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bergaran. Lursaila salgai. 10.000 m2. 678 72 75 72.

Cannon EOS 300 argazki kamera. 28.90 objektiboa. Poltsa opari. 639 90 36 18.

Epiphone SG gitarra elektrikoa eta Peavy anplifikadorea. 210 euro eskatzen ditut biengatik. Berri-berriak. 636 57 65 66.

Peavey baxua salgai. 2002an erosia. Egoera onean eta nahiko merke. 638 46 72 13.

Pultsometroa. S410 modeloa, CD-ROMa barne. 685 76 44 77.

806. GALDU

Arrasate. Erlojua galdu nuen abenduaren 14an, Akelarre gozotegi inguruan. 943 79 86 21.

807. AURKITU

Antzuola. MP3 aparailu bat aurkitu dut. 943 78 70 96.

808. BESTELAKOAK

Bergara. Gabon zahar gauean, neska baten txaketa beltza eraman eta haren lekuan beste bat laga zuen norbaitek Ganbara tabernan. 943 76 13 33.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

KAZETARIA

kontratatu nahi du bertako hedabideetan aritzeko

Eskatzen da:
- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:
- Lan kontratua.
- Etorkizun handiko proiektuetan partaide izatea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculuma,
2007ko urtarrilaren 18a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo admi@goiena.com

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

COPRECI

Copreci kooperatiba-sozietateak, MCCko Osagaien Dibisioko parte den enpresak, formaziodun makinistak behar ditu.

GOI MAILAKO MODULUETAN TITULATUTAKO PERTSONEN
bila gabiltza. Euskararen ezagutza eta kudeaketarako eta talde lanerako gaitasuna kontuan hartuko dira.

Interesatuek ahalik eta azkarren bidali behar dute curriculum-a, harremanetarako telefonoa eta erreferentzia adierazita.

Copreci koop.
Pertsonal departamentua
Araba etorbidea, 3
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

MONDRAGON COMPONENTES

Urtarrilaren 15a: 114 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen **txokoa**

Zorionak, irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 15, egin den zozketaren saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:
Zeu izan zaitezke hurrengo zozketaren irabazleetako bat!

114 zozketako saridunak

PAMIELA
argitaletxeko bi liburu sorta
• Agustin Aginagalde Arantzabal (Aretxabaleta)
• Javier Agiriano Monllor (Arasate)

115 zozketako sariak

Lau kamiseta. (bakoitzari bat)

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
37 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 15

> Danbakako finalaren gaineko saio berezia
21:45

Aby-Kem-ek irabazi du Danbaka musika lehiaketa. Belceblues eta Malenkonia izan dira beste finalistak. Finala ikusteko modua izango da.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
13:45 Gaurkoak.
13:47 Teknopolis.
14:15 Iragana gogoratuz.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ilunpean: Aizpea Goenaga.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Bizitegia. Klip@.
16:15 Jazzminia.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta lur.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:15 Danbaka.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Danbaka finala.
22:15 Hasiberriak.
22:45 Berriak.
23:15 Erreportajea.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Ikusmira.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 16



> 'Berbaire': egungo egoera aztergai
21:15

Gizarte eta politika gaiak aztergai. Gorka Etxaberekin, Maite Aristegi, Joserra Elortza, Joseba Mujika eta Mikel Usabiaga izango dira gaur.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Harmailatik.
14:15 Danbaka finala.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Erreportajea.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Ikusmira.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean: Aizpea Goenaga.
18:15 Bizitegia. Klip@.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak
21:47 Danbaka.
22:15 16mm.
22:45 Berriak.
23:15 Iragana gogoratuz.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Harmailatik.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 17

> 'Debarri': Patxi Basauri, Elgetako alkatea
21:15

Patxi Basauri, Elgetako alkatea, da gaurko gonbidatua *Debarri* saioan, Alberto Gorritiberearen eta ikusentzuleen galderei erantzuten.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Danbaka
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 16mm.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmailatik.
18:15 Iragana gogoratuz.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:15 Danbaka.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
20:45 Berriak.
21:15 Debarri: Elgeta.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Debarri: Elgeta.
22:15 Hasiberriak.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Ur eta lur.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 18

> Xabier Silbeira bertsolaria 'Didjeridu'-n
22:15

Gaurko *Didjeridu* saioan Xabier Silbeira bertsolaria izango da protagonista nagusia. Haren ibilbidea ezagutzeko aukera paregabea.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Debarri: Elgeta.
14:15 Debarri: Elgeta.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Teknopolis.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Jazmina.
16:15 Ikusmira.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa.
18:15 16mm.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:15 Bizitegia. Klip@.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire II.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Danbaka.
22:15 Didjeridu.
22:45 Berriak.
23:15 Erreportaia.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 19



> Patxi Usobiaga eskalatzailea 'Ilunpean'-en
22:15

Patxi Usobiaga eibartarra eskaladako munduko txapelduna dugu. Oihana Elortza kazetariarekin solasean izango da gaur.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire II.
14:15 Danbaka.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:15 Iragana Gogoratuz.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Debarri: Elgeta.
18:15 Debarri: Elgeta.
18:45 Albiste aurrerapena
19:15 Danbaka.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Hitz Bitan.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire II.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Jazzmina.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Danbaka: Debagoieneko Musika Lehiaketa
11:10

Danbaka musika lehiaketako finalean gertatutakoa aztertuko dute gaurko irratsaioan, besteak beste, epaimahaiko kide izan diren Iker Barandiaranen eta Itziar Iturberen laguntzaz.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegiak
Prentsaren errepasoa
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala)
Elkarrizketak
Kirolak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.
Astean barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.
Astean barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.

gertutik

Nora Askargorta
Kazetaria

"Telebista saio guztiak ikusten saiatzen naiz, behin gutxienez"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Aste barruan, *Plató abierto* saioa gidatzen du egunero (21:30ean) Nora Askargortak, Localia telebistan. Sei urte darama Localian, Donostian; aurretik ETBn edo Euskadi Irratian ibilitakoa da kazetari bergararra.

***Plató abierto* saioko ordutegian konpetentzia itzela dago.**

Bai, hala da. Lekuko telebisten kasuan, arratsaldea eta iluntze partea hobeak dira ikusleak harrapatzeko. Gauean, gertuko informazioa eta hemengo jende ezaguna elkarrizketatzea *gantxoak* izan daitezke.

Gipuzkoako herrietako gaietara iristerik badago Donostiatik?

Saiatzen gara. Baina ditugun medioak ditugu... Dena dela, herrietako hainbat proiektu Donostian aurkezten dituzte eta bestela badaude gaiei heltzeko beste formula batzuk, protagonistak elkarrizketatuta, esatera. Adibidez, orain gutxi Valen Moñux etorri zen, *Seussen mundua* ikuskizunaren berri ematera.

Donostiako urteko hitzorduetatik, zein nabarmenduko zenuke?

Zinemaldia, duda barik, zinema izugarri gustatzen zaidalako eta giro berezia sortzen delako Zinemaldian.

Telebista asko ikustekoa zara?

Pilo bat. Programa guztiak ikusten saiatzen naiz, behin gutxienez. Gustatzen zait egiten diren saio berriak ikustea.

Aurkezle gustukoenak?

Asko dira: Jesus Quintero, Julia Otero, Euzkitze...

Lanetik deskonektatzeko?

Donostiatik ihes egiten dut ahal dudanean. Herrizalea naiz eta Deban primeran moldatzen naiz: senarrarekin eta lagunekin irten eta buelta bat ematea ez da plan txarra... Gauza txikiekin konformatzen naiz.

Donostian danborrada izango duzue oraingo astean...

Lan egin beharko dut egun horretan, hara eta hona. Lana amaitutakoan beharbada emango dut bueltatxoren bat... Dena dela, Bergarako San Martzialgo erromeria edo Debako San Roke jaiak gustukoago ditut.

asteko hitzorduak

Ospakizuna



BERGARA
> Etzi, San Anton eguna, meza nagusia egingo dute San Anton ermitan

Etzi, hilak 17, San Anton eguna da. Hori horrela, meza nagusia egingo dute San Anton auzoan. 10:30ean ermitara igo eta gero herritarrek eskaintza egingo dute. 11:00etan, meza nagusia izango da eta gero, luntxa egongo da.

Ipuin kontakizuna

ARRASATE
> Olatz Pagaldai ipuin kontalariak emanaldia egingo du AEDren txokoan

Eskoriatzako ipuin kontalari Olatz Pagaldaik bi emanaldia egingo ditu hilaren 18an, eguena, AEDren egoitzan. Lehenengoa hilaren 10:00etan izango da, eta bigarrena, 18:00etan. Zahar Berrik antolatu du ekitaldia.

Erakusketa

ELGETA
> Unai Azkarate bergararrak margo erakusketa jarri du Espaloian

Unai Azkaratek margo erakusketa jarri du Espaloian. 20 bat lan eskegi ditu antzokiko paretetan. Gehienak akrilikoak badira ere teknika mistodunak ere badira. Otsailaren 4ra arte egongo dira ikusgai.

kuskuxeroa

Arantzazu Ezkibel

Jendetza handia eta ke ugari gurean

Jendetza handiak bildu dira asteburuan: batetik, hainbat manifestazio izan dira hiriburutan. Beno, kasu horietan, jendetza esatea oso subjektiboa da; bada, atzo hainbat egunkarik ekarri zituzten zenbakiei begira jarriz gero zoratu egin gaitezke.

Bestetik, gurean jendetza izugarria bildu zen zapatuan; Loramendik ireki duen lokalean goizean goizetik hasi eta egun guztian zehar izan ziren jende ilarak. Zorte onekoa txamarra on bat erosteko pagotxa izan duena!

"Telebistako sukaldari ospetsuena, hau da, Argiñano, Bergaran izan zen atzo"

Bergaran ere jendetza bildu zen atzo udal pilotalekuan. Gureko pilotazaleek ez zuten **Irujo** ikusteko aukera alperrik galdu gura izan. Ez ibarrekoek ezta **Argiñano**k ere. Telebistako sukaldari famatuena pilotalekuan izan zen jokoaren gorabeherei adi.

Tabernarik egon ez arren, zaleek badakite gin-tonic eta zerbezak nondik atera. Eta puruak ere, poltsikotik atera eta gustura erretzen dituzte pilotazaleek. Izan ere, zer izango litzateke pilotalekua tabako ke gabe?

Ke artean murgildu nahi duenak datorren astean izango du aukera Aretxabaletan, zapatuan, **VII. Kanuto Deuna** ospatuko dute-eta Aretxabaletako gazte batzuek. Joaldunen zarata artean santu herrikoiena omenduko dute.

asteburuko albuma

Urte amaiera Udalatxen. Bi aste badira 2007an sartu ginela, baina urte zaharra gogoratzeko, Arrasateko lagun talde batek 2006a nola amaitu zuen erakutsi digu argazki honekin. Urtero, Gabon Zahar egunean, Udalatxera igo dira joan direneko hamar urteetan, eta aurten ere, ohiturari eutsiz, abenduaren 31n joan ziren Udalatxera. Arratsaldeko hiruretan Udalatik abiatu ziren eta, gailurrera iritsitakoan, tortillak, txorixoa eta turroia jan zituzten sagardoz eta xanpainez bustita. Eguraldi ona izan zuten lagun, eta Udalatx gainean 50 pertsona inguru elkartu ziren. Urte zaharrari agur esateko mendizaleek ezin mendia baino leku hoberik aurkitu.

Apustua. Urbian atera zuen argazkia Elgetako lagun talde honek atzo, domeka. Baina Urbiara arteko igoera ez zen nolanahikoa izan, ez euretako batendako behintzat. Apustu bat tarteko, Fakafaka koadrilako Gaizka Bolinagak (argazkian, erdian) 35 minututik beherako denboran egin behar zuen Arantzazuko Sindika jatetxetik Urbiako gurutzera arteko bidea; bestela, zazpi lagunendako bazkaria ordaindu behako zuen. Eta hala izan zen azkenean. Gaizkak apustuko egunerako gertu egoteko entrenamenduak egin arren, 38 minutu eta 54 segundo behar izan zituen Urbiara iristeko. Beraz, bere kontura bapo bazkaldu zuten koadrilakoek.

UNEDeko ikasle ohiak. UNEDeko Psikologia saileko koordinatzaile Manolo Cainzosek erretiroa hartuko du aurki. Hori dela eta, berarekin ikasle jardundako hainbat lagunek agur bazkaria egin zuten zapatuan Bergarako Zumelaga jatetxean. Bertan elkartu ziren 2000. urtetik 2006ra bitartean lizentziatutako ikasle ohiak. Cainzosi urte hauetan unibertsitateari eskainitako jarduna eta ikasleei erakutsitakoa eskertu nahi izan zizkioten ospakizun honekin.

Zinema Bergaran. Novedades itxi bazuten ere, zinema arloak ekarri du nobedaderik herrira; azkena, zinema emanaldiena. Udal Kultura Zerbitzuak antolatuta, zinema emanaldiak egiten hasi dira Agorrosinen asteburuan. Urtarrilaren 13an eta 14an, *Kutsidazu bidea, Ixabel* filma eman dute,eta gaztetxo talde hori ikustera joan zen. Urtarrilaren 20an eta 21ean *Nomadak TX* filma ikusteko aukera egongo da.

PARTE HARTU

Kintadak,
asteburuko
ezkontzak,
txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia
eta azalpena edo
bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

hildakoak

- **Xabier Ibañez de Opakua Muñoa.** Arrasate, urtarrilaren 11n. 71 urte.
- **Natividad Aretxaga Esteban.** Bergara, urtarrilaren 12an.
- **Petra Galeano Muñoz.** Bergara, urtarrilaren 12an. 82 urte.
- **Macaria Serrano De la Fuente.** Aretxabaleta, urtarrilaren 13an. 86 urte.
- **Mariano Retolatza Arantzabal.** Angiozar, urtarrilaren 13an. 87 urte.
- **Hilaria Ibaibarriaga Mendibe.** Arrasate, urtarrilaren 13an. 71 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 85 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.

Mus txapelketa Aramaion. Zapatuan jokatu zuten mus txapelketa Aramaioko Erretiratuen Elkartean. Guztira, 13 bikotek jardun zuten karta jokoan. Txapelketako irabazleak elkarteko bi bazkide laguntzaile izan ziren, Felix Gomez eta bere bikotekidea, hain zuzen; bigarrenak, Luis Elexpuru eta Norberto Errasti; hirugarrenak, Esteban Lasaga eta Pedro Perez; eta laugarrenak, J.M Mendialdua eta Angel Fernandez. Ondoren, afaria egin zuten.

zorion agurrak

ARRASATE
Ainhoa Urrutia
Urtarrilaren 2an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako. Luken, Uxue eta zure lagun guztien partetik.

ARRASATE
Oier Bujanda Gabilondo
Urtarrilaren 13an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.

ARRASATE
Jon Gardoki
Urtarrilaren 15ean, urtebetetzea! Zorionak eta urte askotarako. Zure koadrilakoen partetik.

ARRASATE
Hodei Barandiaran Arana
Urtarrilaren 17an, 3 urte bete ditu! Zorionak eta urte askotarako. Zorionak etxekoen partetik.

ARRASATE
Manex Okina Altube
Urtarrilaren 18an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Aiton-amonak, gurasoak eta Itziar.

ARRASATE
Andoni Mujika Arrizabalaga
Urtarrilaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako.

BERGARA
Aner Arriola
Abenduaren 23an, urtebete. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxekoen partetik, bereziki Julenen partetik.

BERGARA
Marisa Escobar
Abenduaren 31n, 46 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeko guztion partetik.

BERGARA
Ane Arenaza
Abenduaren 31an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.

BERGARA
Aitzol Gutierrez
Urtarrilaren 13an, 14 urte. Zorionak eta urte askotarako gurasoen eta anaia Mikelen partetik.

BERGARA
Martin Verguizas Arroitajauregi
Urtarrilaren 19an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat. Maialenen eta gurasoen partetik.

ARETXABALETA
Urko Altuna
Urtarrilaren 11n, 2 urte Zorionak eta urte askotarako. Muxu handi-handi bat etxeko guztion partetik.

ARETXABALETA
Eñaut Beltran de Heredia
Urtarrilaren 17an, 6 urte. Zorionak txapeldun, eta aupa UDA! Etxekoak.

ARETXABALETA
Kaiet Gonzalez
Urtarrilaren 17an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Etxekoak.

ARETXABALETA
Malena Gonzalez
Urtarrilaren 19an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Etxekoak.

ARETXABALETA
Nikole Gonzalez
Urtarrilaren 31n, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.

ESKORIATZA
Aitziber Aranburuzabala
Urtarrilaren 13an, urtebetetzea! Zorionak eta urte askotarako. Zure lankideen partetik.

OÑATI
Olatz Altuna Galdos
Urtarrilaren 12an, urtebete. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Familiako guztion partetik.



OÑATI
Leire Egaña Bikuña
Urtarrilaren 21ean, 7 urte. Zorionak! Familiakoen partetik. Muxu handi-handi bat Eiderren eta Markelen partetik. Argazkian Markel lehengusua besoetan duela agertzen da.

IRUÑEA
Miren Lazpiur
Abenduaren 30ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat Izar, Aia eta familia osoaren partetik.

ELGETA
Larraitz Zeberio
Urtarrilaren 16an, urtebetetzea! Zorionak eta urte askotarako. Zure koadrilakoen eta lankideen partetik.

DEBAGOIENA
Aiora eta Maialen
Urtarrilaren 13an, 7 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu bana etxeko guztien partetik.

jaiotakoak

Aitor Galdos Valdivieso
Oñati > 4,250 kg. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Claudia (Txile) eta Imanol (Oñati). Argazkian, amaren besoetan.

Izaro Artetxe Arregi
Arrasate > 3,500 kg. Urtarrilaren 9a. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Asier (Aretxabaleta). Argazkian, umea sehaskan lo.

Markel Maidagan Murgiondo
Arrasate > 3,300 kg. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Rakel (Arrasate) eta Nestor (Arrasate). Argazkian, umea kuman.

Paula Arevalillo Labaien
Bergara > 2,600 kg. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Itziar (Bergara) eta Luis Javier (Bergara). Argazkian, umea kuman.

Eneko Mugartza Aurre
Oñati > 3,220 kg. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Aintzane (Gernika) eta Iñaxio (Oñati). Argazkian, umea kuman.

Amalur Urtzelai Ruiz
Aretxabaleta > 2,650 kg. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Mirari (Oñati) eta Joseba (Aretxabaleta). Argazkian, umea kuman.

Ander Revuelta Jargi
Eskoriatza > 3,630 kg. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Marian (Eskoriatza) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Unai anaiarekin.



Eneko Arroyo Perez
Arrasate > 3,080 kg. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Carmen (Arrasate) eta Miguel Angel (Santurtzi). Argazkian, umea kuman.

Xabat Irizar Perez de Arenaza
Arrasate > 3,720 kg. Urtarrilaren 11. Gurasoak: Alaitz (Arrasate) eta Markel (Oñati). Argazkian, umea kuman lo.

Aimar Aranguren Garai
Elorrio > 3,500 kg. Urtarrilaren 11a. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Asier (Aretxabaleta). Argazkian. amarekin.

Irati Zaitegi Manzanas
Arrasate > 3,050 kg. Urtarrilaren 13a. Gurasoak: Noemi (Arrasate) eta David (Arrasate). Argazkian, umea lo.

Kepa Maidagan Pagaldai
Arrasate > 3,770 kg. Urtarrilaren 12a. Gurasoak: Ainhoa (Arrasate) eta Joseba (Arrasate). Argazkian, umea sehaskan.

ZORIONAK!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2007-01-15

Aitzpea Goenaga > Aktorea, gidoilaria eta zuzendaria

"Lagungarria da etxean artista asko egotea"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Donostiako Urbieta kalean bizi da, ama jaio zen etxe berean. Zuzendu duen *Zeru horiek* filma Parisko Mediateka lehiaketarako aukeratu dute. Beste bi film zuzentzeko proiektuak ditu orain eskuartean. Pozik dago.

Zuzendari lanetan zabiltza aspaldian. Agindu asko ematen dituzu?

Gauzak oso garbi izaten ditut, eta horrek lagundu egiten du. Hala ere, lantalde ederrak tokatu zaizkit eta oso gustura ibili naiz. Ez dakizu, gainera, zenbat barre egiten dugun.

***Ama, quiero ser lehendakari* lanean politika *zuria* egitea enkargatu zizuten. Nola egin duzu hori?**

Erronka izan da niretako, baina lortu dugula uste dut.

Ikusten duzu zeure burua lehendakari?

Aktorea naiz eta hori egiten hasita, asmatuko nuke, baina ni baino lehendakari apropos asko daude hemen.

Artista eta aktore asko zarete familian.

Bai, eta horrek asko laguntzen du bai sasoi onak, bai txarrak edo bai zalantzak dituzunean.

Seme-alabak ere artistak dira?

Batzuetan sekulako antzezlanak prestatzen dituzte. Mozorroen kutxa zabaldu, sarrerak prestatu, entseguak egin... Entseguak zuzenekoak baino hobeto ateratzen zaizkie beti!

Non pasatzen dituzu oporrak? Zer egiten duzu?

TEST-A

Herria: Donostia. **Adina:** 47 urte. **Ikasketak:** Antzerkia. **Zaletasunak:** Itsas ondotik korrika egitea goizean goiz. **Zein da Donostiako tokirik politena?** Kristina Enea parkea asko gustatzen zait, ikastolan nenbilenetik; gaztelua ere polita da. **Zer izan nahi zenuen handitan txikia zinenean?** Hegazkinetako pilotu. **Zer izatea gustatuko litzaizuke?** Beti nahi izan dut antropologia ikastea. **Ñoñostiarra zara?** Zer esan nahi du horrek?

Etxezuloa ere banaiz pixka bat, eta etxean lasai egoteko aprobetxatzen ditut opor egunak.

Itsasoan bainatzen zara?

Ez neguan ezta udan ere. Ez zait itsasoa gustatzen.

Zein izan da zure mitoa?

Ez naiz mitozalea izan inoiz. Seme alabek badituzte posterrak eta argazkiak, baina nik ez.

Zinemaldian ere ez duzu aprobetxatu argazkiak ateratzeko edo autografoak eskatzeko?

Ez, baina zinemaldian pozik egoten naiz belodromoan lanean.

Aktore lanaz gain, beste ze lan egin dituzu?

New Yorken, adibidez, kamiseta mahuka-motzak saltzen egon nintzen negu baten, 18 gradu zero azpitik, egun batzuetan.

Ondo gosaldu behar dugula diote. Zuk egiten duzu?

Kafesnea gosaltzen dut, batzuetan opil eta guzti. Oso kafezalea naiz eta kafe asko hartzen ditut egunean zehar.

UMOREA Lanean ere, barre asko egiten du Aitzpea Goenagak. O.E.

www.goiena.net

Saddam Husseinen heriotzak izango du eraginik Irakeko egoeran, zure iritzi?



biharamuna

Marijo Deogracias

Ni banoa, ba ni ez noa, ba orduan leloa aldatuko dut...

Bertolt Brecht-ek esana: "Gogoaren kontra, egoera behartuta, herria, sendia, etxea utzi behar duena ez da inmigrantea, erbesteratua baizik". Antzera deskribatu zituzten Madrilgo manifestazioan **Carlos Alonso** eta **Diego Armando**: "Armetan botiketan eta eskoletan baino diru gehiago xahutzen duen munduan, Diego eta Carlos modukoek bizitza duin bat eramateko lan, amets eta apustu egiten dute (...)".

Gure herrian, asteon bestelako kontuak izan dira titular. **Pernando Barrena**k ostiralean esan zuen "leloa gutxienekoa zela. Batasunak astelehenean horixe eskatu ziola ETAri eta martitzenean erakundeak horixe berretsi zuela"; hala ere, "ni banoa, ba ni ez noa, ba orduan leloa aldatuko dut..." eta horrela, Euskal Herrian bizi diren hemengo eta hango herritarrek joatea erabaki zuten.

Historia amaigabe honen beste kapitulu bat hasiko dugu. Eta, baliteke, **Harkaitz Martinez** eta **Igor Otxoa**ren ***Nomadak TX*** dokumentaleko mongoliarrak dioenez, "etorkizunean herri nomada asko egongo dira", eta orduan, gure buruhausteak beste batzuk izango dira. Bitartean, zapatuan gauean ikusi nuen **Kunka** antzerki taldearen antzezlanak dioen bezala, *¡Meando fuera del tiesto!* arituko gara.

eguraldia

MINIMOA **+02**

MAXIMOA **+13**

Behe-lainoarekin hasiko da egguna. Erdi eta goi mailako hodeiak izango ditugu. Tenperatura minimoa jaitsi egingo da.

www.euskalmet.euskadi.net